

DONOSTIAKO UDALAREN LANKIDETZA
ETA GIZARTE ERALDAKETARAKO
HEZKUNTZAKO PLAN ZUZENDARIA

2017-2019

Lankidetzaz
Cooperación



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



aurkezpena

Plan berri hau aurkezten dizuegu, Lankidetzaren Kontseiluak eta hura osatzen duten gizarte eragileek eginiko lanaren emaitza moduan. Lankidetzaren Ataleko teknikarien laguntza eta udal talde guztien bultzada izan ditu. Hortaz, lehenik eta behin, eskerrak ematen dizkiet esku hartu duten partaide guztiei, haien ahaleginagatik eta ekarpenagatik.

Donostiako Udalak duela 30 urte hasi eta gaur arte lankidetzaren alorrean ibili duen bidea jasotzen du Gizarte Eraldatzeko Lankidetzaren eta Hezkuntza Plan Zuzendari honek.

Ezin uler daiteke nazioarteko lankidetzaren soilik gure laguntza jasotzen duten tokietan gauzaturiko ekintza moduan, donostiarrok geureganatu beharreko kontzientziaztea eta sentsibilizazioa ere barne hartu behar baitu, hemengo errealitateak hangoari kalterik ez egitea lortuko badugu. Globalizazio ekintzek ez dute jomugan izan behar munduko biztanleen arteko ezberdintasun amildegiak handitzen uzterik, kontrakoa baizik, horiek murriztea eta orekatzea etengabe bilatzearen aldetik, ikuspegizat politika, ekonomia, kultura eta erlijioa erabilita.

Donostiarron lankidetzak jarraitu behar du apustu egiten pertsonak erdigunean dituen garapen eredu bat bultzatzearen alde, pobrezia, gizarte zuzengabearen eta ezberdintasunaren aurka borrokatzearekin konprometituriko eredu bat, halako lankidetzaren modu batekin non jatorrizko lekue-tako prozesu komunitarioak sendotzen baititu, ordezkatzeko saiatu gabe. Emakumeak ere barruan hartzen dituen partaidetzaren bat bermatzeaz batera.

Eta guztiz jabetuta gure hiriaren tamainaz eta aurrera atera dezakegun lankidetzaren eraginaz, lanean iraungo dugu beste erakunde batzuekin batera, geure ekarpena jaritzeko lan solidario horretan, ezinbestekoa delako kritikoak eta munduan zer gertatzen den ulertzeko gauza izaten jarraitzeko, munduan gora doalako gogotsuek, ur eta osasun eskasiak, eskubide abusuak, gerrak eta abar jasaten dituzten pertsonen kopurua.

ESKERRIK ASKO, zuzen nahiz zeharka, SOLIDARIO izan den, den edo izango den donostiar bakoitzari.


Duñike Agirrezabalaga

Auzoetako eta Deszentralizazioko,
Erantzunkidetasun Zibikoko, Berdintasuneko
eta Lankidetzako zinegotzi ordezkaria

AURKIBIDEA

4	1 AURKEZPENA
9	2 SARRERA
13	3 ZEIN DA ABIAPUNTUA?
15	3.1 Donostiako Udalaren lankidetzako ibilbidea
15	3.2 Aurreko planaren ebaluazioaren laburpena
16	3.3 Testuingurua
17	3.4 Donostiako lankidetzako eragileak
21	4 NORANTZ JOAN NAHI DUGU?
23	4.1 Xedea
23	4.2 Printzipioak
23	4.2.1 Giza garapen iraunkorra
23	4.2.2 Elkartasuna eta hiritartasun globala GEHrentzako abiapuntu gisa
23	4.2.3 Genero berdintasuna
24	4.2.4 Erantzunkidetasuna eta koherentzia
25	4.2.5 Jabetzea eta izaera estrukturala
25	4.2.6 Osagarritasuna eta koordinazioa
25	4.2.7 Parte hartzea, kalitatea, eraginkortasuna eta gardentasuna
26	4.3 Interes bereziko arloak
26	4.3.1 Giza eskubideak
27	4.3.2 Komunitateen parte hartzea eta indartzea:
27	4.3.3 Genero berdintasuna
28	4.3.4 Kontsumo eta ekoizpen kontziente eta arduratsua
28	4.4 Zehar lerroak
28	4.4.1 Genero berdintasuna
29	4.4.2 Ekologia eta giza iraunkortasuna
29	4.4.3 Giza eskubideak
31	5 NOLA EGINGO DUGU?
33	5.1 Parte hartzea
33	5.1.1 Lankidetzako Udal Kontseilua
33	5.1.2 GGKEen Koordinakundea
33	5.1.3 Itunak beste sare eta plataforma batzuekin
35	5.2 Jarduteko moduak
35	5.2.1 Garapenerako lankidetzak
36	5.2.2 Gizarte eraldaketarako hezkuntza (GEH)
36	5.2.3 Ekintza humanitarioa eta larrialdizko laguntza
36	5.2.4 Eragina Udalean
37	5.3 Tresnak
37	5.3.1 Lehia askeko diru-laguntzen deialdi publikoa
38	5.3.2 Udal lankidetzak zuzena
39	5.4 Baliabideak
39	5.4.1 Talde teknikoak
39	5.4.2 Aurrekontuak
39	5.5 Garapena, segimendua eta ebaluazioa
40	5.5.1 Plan operatiboak, segimendua eta urteko memoriak
40	5.5.2 Amaierako ebaluazioak
43	6 LANKIDETZA ATALEKO TEKNIKARIEK PRESTAKUNTZA EGOKIA JASO DUTE, ETA EZAGUTZA EGUNERATU DUTE.
44	A) Kalitatezko gizarte eraldaketarako lankidetzak eta hezkuntzak bultzatzea
47	B) Donostian genero berdintasuna eta justizia sozialarekin solidarioago eta konprometitua den gizarte lortzeko aldaketa bultzatzea.
49	C) Politiken koherentzia
51	E) Lankidetzan eta gizarte eraldaketaren hezkuntzan lanean diharduten Donostiako GGKE-ak eta gizarte mugimenduak indartzea
55	7 ESKER ERAKUTSIK





sarrera

2008-2011 aldiko legegintzaldia hasi zenean, *Donostiako Udaleko Garapenerako Lankidetzaren eta Hezkuntzako 2008-2011 Plana* egin zen, lehenbizi. Dokumentu horretan jaso ziren, lehen aldiz, Udalaren lankidetzako jarduera ildoak, eta Lankidetzaren Atalaren lana kokatzeko balio izan zuen. I. plan horrek aldaketa sakonak eragin zituen Lankidetzaren Atalaren garapenerako hezkuntzaren jardueren programazioan eta diru laguntzen oinarrietan, eta, horrez gain, Lankidetzaren Udalen Kontseilua abian jartzea ahalbidetu zuen. Kontseilu horrek lanean dihardu harrezkero.

I. planaren ebaluazioak agerian jarri du, beste hainbat ikaskuntza garrantzitsuren artean, garrantzi estrategiko handia izan duela Lankidetzaren Atalaren lana gidatzeko eta posizionatzeko dokumentu publiko bat izateak, lehenbizi. Dokumentu horrek sistematizazioa eta gardentasuna ekarri dizkio sailaren lanari eta, gainera, GGKEek eta donostiarrek segimendua egiteko eta ebaluatzeko aukera dute.

Geroago, *Giza garapen iraunkorrerako lankidetzaren eta hezkuntzako II. plan zuzendaria* sortu zen 2012-2015 aldirako, aurrekoan ikasitakoan oinarrituz, indarguneak sakontzen zituen, egitura eta eraginkortasuna gehituz. Plan horri 2015ean egindako ebaluazioak erakutsi zuen hiriko udal eragile estrategikoei ulertu eta balioetsi zuten planifikazioa izan zela, eta 3.2. puntuari jasotzen diren hobetzeko ekarpen interesgarriak egin zituzten.

Garapenerako lankidetzaren kalitatezko jarduerak garatzeko, oraindik ere uste dugu ezinbestekoa dela epe luzera planifikatutako politikak izatea, egoeraren arabera erabakietatik haragokoak eta egonkortasuna ekarriko dutenak. Helburu horrekin sortu da *Giza garapenerako lankidetzaren eta hezkuntzako III. plan zuzendaria*, 2017-2019 aldirakoa. Hain zuzen, alde ba-

tetik, gaur egungo Udalen Gobernuaren funtsezko balioak eta lankidetzaren politika agertu nahi ditu, ahalik eta modurik argi, ulergarri eta gardenean; eta, bestetik, datozen lau urteetan Lankidetzaren Atalaren egin behar duen lana zuzenduko du, eta herritarrei lan horren segimendua eta ebaluazioa egiteko aukera emango die. Helburu horiek betetzeko, planaren parte hartzekoa, egituratu eta nahiko eragilea izan behar du, baina malgutasunez interpretatu behar da, politiken bilakaera beharrezkoa muga ez dadin, eta datoren lau urte honetan agertuko diren ekimen berriak martxan jartzea eragotz ez dadin.

Bestalde, azpimarratu beharra dago, aurreko dokumentuan bezala, honetan ere ez dagoela Garapenerako Lankidetzaren buruzko analisi teoriko luzeirik. Zein jarrera hartuko dugun, gure balioak eta printzipioak zein diren eta hortik zein helburu bete nahi dugun azaldu nahi dugu, bai eta hori guztia nork eta nola egin nahi dugun ere (zer egin nahi dugun galderaren garrantzi bera dute horiek ere), besterik ez.

Eta aipatutako guztia Donostiako elkarte eta gizarte mugimenduekin batera egin nahi dugu; garapenerako GGKEekin zein oinarrizko beste erakunde batzuekin, eta egunez egun giza garapen eta garapen sostengagarriaren alde lanean ari direnekin. Gure bidea beste erakundeekin ere partekatu nahi dugu, ezaguerak, esperientziak, balioak eta xedek trukatzeko. Elkarrekin egin nahi dugu bidea, eta donostiar guztiei gonbidatu egiten diegu bide horretan lagun egin diezaguten. Bide horretan, proposamenak eta iradokizunak egin ditzakezue, eta egingo ditugun urratsei segimendua egiteko eta ebaluatzeko aukera ere izango duzue. Prozesu hori errazago izan dadin, gure asmoak eta helburuak plan honetan jaso ditugu, bai eta egingo dugun ebaluazioaren eta segimenduaren metodologia ere.





zein da abiapuntua?

3.1 Donostiako Udalaren lankidetzako ibilbidea

Donostiako Udalak hainbat urte daramatza donostiarren solidaritatea politika publikoa bihurtzen, garapenerako lankidetzeta eta hezkuntzaren arloan askotariko ekimenak egiten. 1986an, Donostiak lehenbizi hartu zituen 50 haur saharar, Tindoufeko iheslarien kanpamentuetan bizi zirenak. Eta, 1988an, Donostiaren eta Bojadorko dairaren arteko senidetzea sinatu zen; horrekin, donostiarren eta sahararren artean elkartasunezko harreman berezia sortu zen, eta bizirik dirau, gaur egun ere. Ildo horretan, 1997an, Donostiak lankidetzeta-hitzarmena sinatu zuen Bosniako Gorazde hiriarekin.

1994an, Lankidetzeta eta Tolerantzia Bulegoa formalki eratu zen (gero izena aldatu zitzaion: Lankidetzeta), eta orduz geroztik lankidetzeta-proiektuak eta Garapenerako Hezkuntzako proiektuak garatzen dituzten erakundeei eta GGKEei laguntzen die. Besteak beste, diru laguntzeta-rako deialdiak egiten ditu urtero, eta gizartea eraldatzeko hainbat ekimenetan laguntzen du.

Bestalde, Donostiako Udala Euskal Fondoko (Euskal Tokiko Erakunde Lankideak Elkarte) kide da elkarte sortu zenetik (1996), eta bertako zuzendaritza batzordeko kide da.

2003an, Lankidetzeta Atalak geldialdi txiki bat eta atzera begirako gogoeta egiteko beharra ikusi zuen, horrek etorkizuneko lana bideratzen eta Ipar-Hego elkartasun esparruan etorkizuneari jarraitu beharreko ildoak ezartzen lagunduko ziolakoan. Gainera, erabiltzen ari zen tresnen baliozkotasuna aztertu beharra zegoela ere erabaki zuen. Horregatik, Udalak aurreko sei urteetan –1997tik 2002ra bitartean– lankidetzan egindako ibilbidea aztertu zuten, urte horietan

guztietan tartean izan ziren erakunde eta eragile guztien lankidetzarekin.

Azterketa hori abiapuntu hartuta, erakunde guztiekin parte hartzezko prozesu luze bat martxan jarri zen, *Nondik Nora* izenekoa (2003-2005), xedetzat hartuta guztien artean lehentasunezko lan ildoak ezartzea, Udalaren lankidetzeta politika hobetze aldera. Prozesu horretan egindako lanaren emaitza gisa, bi lehentasun ezarri ziren: Lankidetzako Aholku Kontseilua abian jartzea; eta Udalaren politikaren ildo estrategikoak ezartzea, gida plan baten bitartez.

Lankidetzako Aholku Kontseiluak 1996. urtean ditu aurrekariak, baina 2008an suspertu eta abian jarri zen, erakunde guztiekin adostutako eta egiaztatutako araudi berria eginda; eta gaur egun ere lanean jarraitzen du. Kontseilua 2012an berritu zen, beste udal kontseilu sektorialen araudiarekin berdintzeko.

Udalaren lankidetzeta politika *Donostiako Udaleko Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntzako 2008-2011 I. Planeari eta ondoren Donostiako Udaleko Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntzako 2012-2015 II. Planeari* definitu zen, eta bertan zehaztu ziren lankidetzeta politikaren ildo estrategikoak ere. Haren ondoren honako III. plan hau egin da. Plan honek bideratu eta zuzenduko du Lankidetzeta Atalaren jarduerari datozen hiru urteetan.

3.2 Aurreko planaren ebaluazioaren laburpena

2016. urteko lehen hilabeteetan zehar, eta aholkularitza espezializatu baten eskutik, *II. Gida plana* ebaluatu zen. Ebaluazioaren txosten osoa, laburpen exekutiboarekin batera, sailaren web orrian dago, eta beraz, hemen oso labur, ebaluazioko prozesutik ateratako ideia, balorazio eta gomendio nagusiak aipatuko ditugu:

Ikuspegi teorikoari buruz, prozesuaren ondorio nagusiek II. Plana asmo handiko, adostu eta

3.3 Testuingurua

koherente moduan deskribatzen zuten, eragile estrategikoei orokorrean ondo balioztatzen zutelarik. Bestalde, adierazle batzuen kasuan anbizio gehiegi antzematen da, eta gainera, interese bereziko guneek sortutako nahaste txikia. Elementu berritzaileak positiboki balioztatzen dira; elikadura burujabetza edo indarkeriarik eza aktiboaren kontzeptuak sartzea bezala.

Eragile eta hauekiko elkarriketak direla-eta, Euskal Fondoa GGKEen Koordinakundearekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Lankidetzako Udal Batzordearekin dagoen erlazioa azpimarratu daiteke, azken hau parte hartze eta elkarriketarako funtsezko gunea delarik. Politika koherentzian egin den esfortzua balioztatzen da eta alor horretan lan egiten jarraitzea eskatzen da.

Instrumentu eta baliabideei dagokienez, oinarrien balorazioa orokorrean positiboa da, nahiz eta sinplifikatzea eta argitzea eskatzen den. Planaren lehen urtetan, lankidetzarako dagoen aurrekontua mantentzeko egin den esfortzua aitortzen da, murrizketa orokorrak egon diren arren, % 0,7aren errebindikazioarekin jarraitu baita.

Gomendio nagusi bezala, Planaren helburuen matrizea berrantolatzea iradokitzen da argitasuna irabazteko, zeharkako lerroak eta interes bereziko lerroen arteko desberdintasuna berrikustea, indarkeriarik eza aktiboaren sarrera berriz pentsatzea, oinarri eta formularioen sinpletzean aurrera egitea, lankidetzazuzena ebaluatzea, eta ebaluazioaren kultura aurrera egitea, Planaren ahularen ikusten den elementuetako bat baita. Gainera, komunikazioa sistematizatu eta hobetzea gomendatzen da, ez bakarrik gardentasunagatik, baizik eta hiritarrak lankidetzaz ekimenez, eta aurrekontuaren mantentze eta hobetzeaz jabetzeko.

Berriz ere eskerrak eman nahi dizkiegu ebaluazio prozesu honetan parte hartu duten eragileei, eta haien iradokizunak dokumentu osoan zehar presente izango ditugu.

Ez dago gehiegi arakatu beharrik planeta mailan dagoen desberdintasun itzela eta pobrezia-aren egoerari buruzko datu latzak aurkitzeko. Nazio Batuen Garapenerako Programaren (NBGP) azken Garapen Txostenek erakusten dute munduko bost biztanletik bat pobrezia egoeran bizi dela, eta 1.500 milioi pertsona ez dutela sa-neamendurik, edateko urik, elektrizitatearik, oinarriko heziketarik edo osasun zerbitzurik, eta gainera, bizitza duin batekin bateragarria den gabezia ekonomikoa sufritzen dutela. 2014ko txostenean, ahultasun eta erresilientzian zentratu zena, NBGPk ohartarazten du krisi finantzario, indarkeriazko gatazka, elikagaien prezioen aldaketak edo naturaren hondamendiak ez dutela aurrerabidea bakarrik oztopatzen, baizik eta lortutakoa suntsitzeko mehatxua ere sortzen dutela. Eta ez dira nekez sinesteko mehatxuak. 1.500 milioi pertsona baino gehiago gatazkan dauden herrialdeetan bizi dira. Eta ez gara urrutira joan behar Europan alferrik ate joka dauden milaka errefuxiatuen errealitatea ikusteko. Bestalde, Genero Garapenaren Indizeak biztanle bakoitzeko diru-sarrera nazionalaren desberdintasuna erakusten du; gizonezkoena emakumezkoenaren bikoitza baino gehiago da.

Batzuetan, oso datu zehatzek estatistika orokorrek baino argitasun gehiago erakusten dute: MOEren 2012ko txosten baten arabera, Suedian emakume bat haurdunaldian edo erditzean hiltzeko duen arriskua 17.400etik 1ekoa da; Afganistanen, berriz, 8tik 1ekoa. Eta Lesothon jaiotako neskato batek Japonian jaiotakoak baino 42 urte gutxiagoko bizitza iraupena izango du. Pobrezia izugarrian bizi diren pertsonen ia erdia 18 urtetik beherakoa da. Oxfamen azken txostenak salatzen duen moduan, munduko desberdintasun izugarria kota jasanezinetara iristen ari da. Gaur egun, biztanleriaren % 1 aberatsenak planetako beste % 99ak baino aberastasun gehiago du. Boterea eta pribilegioak sistema ekonomikoa manipulatzeko erabiltzen dira eta modu horretan desberdintasuna areagotzen da, ehunka milioi pertsona behartsu esperantzarik gabe utziz. Paradisu fiskalen munduko sareak gutxieneko pribilegiatu batek 7,6 bilioi dolar ezkutatzen uzten du. Pobrezia-aren kontra modu

arrakastatsuan borrokatzeko, ezinbestekoa da desberdintasunaren krisiari aurre egitea.

Munduko panorama honen kontra, eta egoera ekonomiko konplexutik datozen zailtasunak egon arren, donostiarrek desberdintasun ekonomiko eta sozial globalen aurka duten konpromisoa mantendu dute. Udalak, konpromiso horren islak, garapenerako lankidetzaren politika publiko moduan finkatu du, aberastasunaren banaketa bidezkoago batean oinarritzen den nazioarteko ordena sustatuz. Gainera, garapenerako hezkuntza, gaur egun gizarte eraldaketarako hezkuntza (aurrerantzean GEH), modu berezian bultzatu du, kontuan izanda, gure gizarte globalizatu eta interdependentean arazo sozialak eta soluzio posibleak gero eta erlazio gehiago dutela beste errealitate eta testuinguru geografikoekin.

Zentzu horretan, nahitaezko erreferentzia da lankidetzarako nazioarteko markoa berria, NBEren Batzorde Orokorrak 2015eko abuztuan onartua: 2030 Agenda eta bere zehaztapena diren Garapen Iraunkorren Helburuak; pobrezia amaitzea dute helburu, desberdintasuna eta bidegabekeriaren aurka borrokatzea, eta aldaketa klimatikoari aurre egitea, munduko edozein tokitako pertsonen giza eskubideen betetzea bermatuz. Mundu mailako Helburu berriak eta garapen iraunkorren agenda Milurteko Garapen Helburuak (MGH) baino askoz harago doaz, pobrezia oinarritzeko kausak eta pertsona guztien garapenerako behar unibertsala aztertuz. Lehen aldiz, nazioarteko agenda batek garapen kontuak ingurumen kontuekin lotzen ditu, desberdintasuna arazo nagusi moduan jartzen du, arazoak partekatuz direla eta neurriak herrialde guztietan aplikatu behar direla planteatzen du, eta politiken eta gizarte zibilaren parte hartzearen arteko koherentziaren garrantzia azpimarratzen du.

Hala ere, alderdi positibo horiek egon arren, ez dugu ahaztu behar gizarte zibiletik azpimarratu dela GIH askok ez dutela modu objektiboan neurtu daitekeen eperik, helmugarik edota adierazlerik, eta beraz ez dutela konpromiso errealek ekartzen, hitz onez harago. Hori dela eta, ez da gutxienezko agenda bat besterik. Gainera, enpresei eta sektore pribatuari paper garrantzitsua ematen zaie. Horregatik, nazioarteko marko

honek dakarren aurrerapenagatik, eta bere zabalak zabalaren abantailak direla-eta aprobetxatu beharra dago, baina zalantzarik gabe, helburua hori gainditu eta harago iristea da. GIHak lankidetzarako eta gizarte eraldaketarako beste instrumentu bat bezala erabili nahi ditugu, gure hiritik bidezko gizarte bat eraikitzeko ezinbestekoak diren oinarriak ezartzeko.

Dokumentu honen azken partean, helburuak, adierazleak eta ekintza zehatzak azaltzen direnean, Garapen Iraunkorren zein Helburu bultzatzen ari garen adieraziko dugu, GIHen betetzea laguntzeko gure ekarpena ikusarazteko.

3.4 Donostiako lankidetzako eragileak

Donostian, hainbat eragilek dihardu lanean lankidetzaren eta elkartasunaren munduan; eta, are interesgarriagoa dena: horietako asko elkarrekin harremanetan daude hainbat sare eta itunetan, eta sare eta itun horiek balio handiagoa ematen diete beren ahaleginei eta jardueren eragina areagotzen dute.

Egoitza Donostian duten GGKEak dira Donostiako lankidetzaren eragile nagusi, eta ezinbesteko erreferente dira, gainera, lankidetzaren eta garapen ereduaren inguruko gizarte eztabaidan. Bazkide, boluntario eta pertsona liberatu ugari hartzen dituzte barnean, eta horietako askok ibilbide luzea eta erro bereziak dituzte hainbat kolektiborekin (ikastetxeak, elkargo profesionalak, lanbide bateko kideak dira, eta abar), eremu geografikoekin (auzoak) eta/edo oso harreman estua dute gizarte mugimenduekin. GGKE horietatik ia 40 GGKEen Koordinakundearen barruan daude.

Alferrikakoa litzateke Donostiako GGKEak sailkapen itxi batean sartzea, hainbat tipologia baitaude, eta erakunde bakoitzak idiosinkrasia propioa baitu. Gainera, denborarekin eboluzionatzen ari dira, errealitate ezberdinetara egokitzen, baina oso banaketa generikoa egin liteke, ñabardura asko galtzen direla jakinda,

kudeaketa modu ezberdinei dagokienez. Kontratutako pertsonala izateak askotan (ez beti) zenbait mailatan finantzaketa publikoa lortzeko aukera mugatzen du; esaterako udalarena, deialdien konplexutasuna eta ekartzen duen kudeaketa lanagatik. Gardentasunak eta administrazioaren diru publikoko kopuru handien fiskalizazioak eskatzen duten kontuen zehaztapena, eta erakundeei ekartzen dien zailtasunaren arteko orekari buruzko debatea irekita dago, eta zaila da ebazten.

Itunak egitea eta sareko lana sortzea funtsezko iruditzen zaigu, erakunde txikien potentziala alferrik ez galtzeko eta, oro har, gizarte mobilizatorako gaitasuna eta horren eraginkortasuna areagotzeko. Hortaz, Donostiako Udalak mota horretako itunak egin daitezzen adoretu eta bidea eman nahi du, bereziki pertsonal liberatua duten GGKEak, finantziazioa lortzen esperientzia dutenak, eta aukera horiek ez dituztenak, baina giza oinarria dutenak eta gure hiriaren gizarte sektore zehatzetan intzidentzia gaitasuna dutenak. Horretarako, alde batetik partzuergoak sortzea bereziki baliotzatzen dugu, eta partzuergoei diru kopuru handiagoa emango zaie, GGKE bakar baten proiektuei baino. Beste aldetik, GGKEak indartzea bultzatzen jarraituko dugu, trebakuntza eta lantegiak eskainiz.

Lankidetzaren beste eragile gako bat Euskal Fondoa da (Lankidetzako Tokiko Euskal Erakundeen Elkarte). Donostiak, elkarte sortu zeneetik, parte hartze aktiboa du bertan, eta elkarte babesten jarraituko du, hori jotzen baitu Hegoako udalerriekin lankidetzan zuzenean aritzeko oinarrizko era (ikus 5.2.3 puntua).

Beste eragile gako bat hirugarren sektore edo elkartasunezko ekonomia deituriko horretako erakundeen eta enpresen kasua da. Helburu soziala duten jarduera ekonomikoak egiten dituzte, elkartasunezko jarduteen, parte hartzezkoen, humanisten eta, funtsean, mozkin asmorik gabeko jarduteen bitartez. Detailetan sartu gabe, GEHn eragile aktiboenen zerrendan hezkuntza zentroak eta unibertsitateak, eta, noski, hiriko Udala ere egongo lirateke.





norantz joan nahi dugu?

4.1 Xedea

Gizartea eraldatzen laguntzea, mundu bi-dezkoagoa eraikitzeke; eta pobrezia estrukturala eta aukera berdintasunik eza errotik ken dadin laguntza ematea. Horretarako, lurralde txiroetan giza garapenerako prozesu jarraituak lagunduko dira, eta gure hirian giza eskubideetan, genero berdintasunean, eta giza eta ingurumen iraunkortasunean oinarritutako GEH ekimenak sustatuko ditugu.

4.2 Printzipioak

Plan honetako printzipioak, neurri handi batean, aurreko planean ezarritakoen oso antzekoak dira. Gure nortasunaren ikur dira, eta politikan dugun jarrera eta lankidetzeta eta garapenerako hezkuntza ikusteko dugun ikuspegia erakusten dute. Horrez gain, abiapuntu epistemologiko dira lankidetzeta gaietan Donostiako Udalean, jarduteak, estrategiak, ekintza ildoak eta erabaki hartzea definitzeko.

4.2.1 *Giza garapen iraunkorra*

Giza Garapena, 1990ean Nazio Batuetako Garapen Programak definitua, pertsona guztien aukerak eta gaitasunak zabaltzeko prozesua da. Zehatzago, ardatz ditu bizi itxaropena, osasuna, hezkuntza eta bizimodu duina izateko beharrezko baldabideetarako sarbidea hobetzea, batetik; eta pertsona guztien giza eskubideak errespetatuko diren ingurunea sortzea eta bermatzea, bestetik. *Sostengagarri* dela esaten

dugu gaur egungo belaunaldien beharrak betetzen dituen garapen prozesua, baina gure beharrak betetzeko etorkizuneko belaunaldien gaitasuna arriskuan jarri gabe. Giza Garapen Sostengagarria garapen teoria hutsa izatetik harago doa. Paradigma bat da; gizakia jartzen du ardatz, eta lotura positiboak sortzen ditu hazkunde ekonomikoaren eta pertsonen gaitasunak areagotzearen artean.

4.2.2 *Elkartasuna eta hiritartasun globala GEHrentzako abiapuntu gisa*

Elkartasuna giza balio inportanteenetako eta funtsezkoenetakoa da. Gainera, justizia sozialeko ekintza da, guztion onerantz aurrera egiteko ezinbestekoa. Elkartasun internazionalak konpromiso bat ekartzen du, eta gizarte osoaren lana da, erakunde publikoetatik, eragile sozial eta norbanakoetaraino.

Hiritartasun globalaren kontzeptuak, berriz, hauek adierazten ditu: hiritar arduratsuak, Planetaren justizia eta iraunkortasunarekin konprometituak, dibertsitatea giza aberastasun iturri moduan, ingurumenaren eta kontsumo arduratsuen defentsa, giza eskubide indibidual eta kolektiboenganako errespetua, genero berdintasuna, eta elkarriketa gatazkak modu baketsuan konpontzeko tresna gisa. Gizarte parte hartzailea, eta gizarte bidezko, zuzen eta solidarioa sortzeko konprometitua eta erantzunkidea. Kontzeptu hau GEHren ardatz nagusia da. Proposamena, hiritartasun globalaren eskubideen jabetzatik sortzen da, erantzukizunak hartu eta gizartea eraldatzeko.

4.2.3 *Genero berdintasuna*

Justizia soziala eta berdintasuna lortzeko oztopo nagusietako bat gizonezkoen eta emakumezkoen arteko menderatze/mendekotasun botere harremanak dira. Harreman horiek gaur egungo sistema patriarkala betiketuz dute eta, beraz, gizateriaren erdiak baino gehiago —hots, emakumezkoak— kanpo uzten eta baztertzeko dituzte eta, horrenbestez, emakumezkoek ez dute aukera bera izaten garapen prozesuetan

eta horien abantailetan parte hartzeko, ez eta sartzeko ere. Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko aukera berdintasunik eza ez zaio biologiari zor; gizartean eratu da. Giza garapen sostengagarria finkatuko da, emakumezko eta nesken eskubideak onartu eta gizarte ezberdinetan hauen ahalduzko progresiboan islatzen den errealitatea izan arte. Ikuspegi global batekin, berdintasunaren erronketan aurrera egiteko bidea Emakumearen aurkako diskriminazio ezabatzeari buruzko hitzarmena (CEDAW) eta Emakumeen Munduko Konferentzian (Beijing, 1995) ezarritako ildoek markatu zuten: emakumeen ahalduzko ekintza zehatzak eta genero ikuspegiaren zeharkakotasuna uztartzen, aurrera eramaten diren politika eta ekintza guztietan (mainstreaming). Hala ere, Beijingeko Ekintza Plataformaren 20. urteurrenaren analisiak oraindik ere atzerapauso batzuk eta lortzeko zain dauden erronkei buruzko datu kezkarriak eman zituen.

Feminismoa, emakumezko eta gizonezkoen arteko eskubide eta aukera berdintasuna zaintzen duen pentsamendu eta aktibismo bakezalea, garapenerako lankidetzaren alorrean oso errotuta dago. Alor hori aitzindaria izan da genero ikuspegia txertatzen, hein handi batean Hegoaldeko kolektibo feministekin egindako elkarlan eta aliantzei esker, eta gero eta gehiago Ipar globalekoekin ere.

4.2.4

Erantzunkidetasuna eta koherentzia

Donostiako lankidetzak pertsonetan oinarritzen den eredu bultzatzen jarraitu behar du, eta pobrezia, injustizia soziala eta berdintasunik ezaren aurkako borrokarekin konprometitu dagoen garapen ereduaren alde apustua egiten. Politiken arteko gero eta mendekotasun handiagoak, tokikoak ere, Iparraldekoak eta Hego globalean dituzten eraginek erakusten digute garapen politikak ez duela soilik lankidetzaren arloko gaia izan behar; zeharkakoa izan behar du, ekintza publiko osoan. Garapenerako esfortzuak alferrikakoak izango dira beste politike-tako efektuek zulatu edo ezeztatzen badituzte (antikooperazioa), garapenean dauden herrialdeen onurarako sinergiak sortzeko aukera bali-

tu ordez. Zentzu horretan, erosketak eta kontratazioetan klausula sozialak eta ingurumenekoak sartzeari gain, plan honetan aspektu berritzaile batean sakondu nahi dugu: paradisu fiskalik gabeko hiriaren adierazpena.

Paradisu fiskalak, multinazionalak eta ondasun handiei dagozkien zergak modu bidezko batean ez ordaintzea onartzen dien sistema global baten oinarriko elementuak dira. Bitartean, munduan 896 milioi pertsona pobrezia larrian murgilduta daude, eta hamar pertsonatik zazpi desberdintasun ekonomikoa orain duela 30 urte baino handiagoa den lurraldeetan bizi dira. Paradisu fiskalek beharrezkoak diren zerbitzu publikoak biztanleriari emateko baliabideak Gobernuak kentzen dizkiete, hala nola, osasun laguntza edo hezkuntza, eta hazten ari den desberdintasunari heltzeko. Sistema global honek neurri handi batean planetako ondasun handiei laguntzen die, baina munduko zenbait komunitate pobreentzat efektu suntsitzailea du. Horregatik guztiagatik, Donostiak prozesu bat abiatuko du paradisu fiskalik gabeko gunea bihurtzeko¹.

Bestalde, gobernuen eta erakundeen ardura oso inportantea den bezala, azpimarratu nahi dugu herritar bakoitzak ere banakako erantzukizuna duela. Gure ekintzek, jarrerek, ohiturek eta beharrek eragina dute Hegoko pertsonen bizimoduan. Gauzak erosteak eta kontsumitzeak, espazio publikoan parte hartzeak eta Hegoalde globaletik datozen eta gure alboan bizi diren pertsonekin batera bizitzeak, besteak beste, Hegoalde horretan eta bertan bizi diren pertsonetan eragiten ari gara, horien ekonomia eta garapen aukeretan, ingurumenaren kalitatean, etab. Hortaz, Udalak, oro har, herritarrak hezi behar ditu, honako arlo hauetan: kontsumo kontzientea eta arduratsuen balioak, natura babestea, eta arrazakeriaren eta xenofobiaren eta genero berdintasunik ezaren kontrako borroka. Azken finean, balio humanistetan. Eta horien bitartez balioetsi behar dugu gure hirian pertsona guztien ongizatea, gizarteko kezken eta, beraz, lehentasun publikoen ardatz hartuta.

¹ Intermon Oxfamen ekimena jarraituz:
<http://www.oxfamintermon.org/minisites/zonaslibres/#>

Erakunde publiko eta erakundeetatik lankidetzako ekintzak ez dira posible izango hiritarren inplikazio eta kontzientziatorik gabe, antolatuarik egon edo ez.

4.2.5

Jabetzea eta izaera estrukturala

Jabetze kontzeptuak esan nahi duena zera da: kasuan kasuko komunitateak edo herriak bertako garapenaren eta horretarako egingo diren ekintzen gainean benetako kontrola egin behar duela. Udalak Hegoko komunitate antolatuen lehenetsunekin bat etorriko diren ekimenak bultzatu behar ditu, bai eta parekoen arteko itunen eta elkartasunezko laguntasun horizontaleko harremanean lagun egingo dieten ekimenak ere. Eta, horren bitartez, komunitate horietako bertako prozesuak errazten eta indartzen lagundu behar du, baina haiek ordeztuko asmorik gabe. Era berean, mezu horixe helarazi behar da gure hirian, garapenerako hezkuntzako ekimenetan.

Bestalde, bai lankidetzan bai hezkuntzan, ekimenak eraldatzaileak eta, epe luzera, pixkanakako aldaketa prozesuak izan behar dira; eta pertsonok, hangoek zein hemengook, prozesu horiei esker, eta gogoeta kritikoaren eta eza-gutzaren bitartez, gure eskubideez jabetu behar dugu, eta bete daitezen eskatu behar dugu. Lankidetzan, ez bairik gabe, maiz ezinbestekoa izaten da behar praktikoa betetzea, baina horrekin batera beti interes estrategikoak lortzera bideratutako aurrerapen paraleloa lortzeko lana etorri behar da. Hain zuzen ere, interes estrategikoen emango dute bidea aldaketa egiteko, epe luzera. Era berean, behar-beharrezkoa da prozesu horietan emakumezkoen parte hartze bidea emango zaiela bermatzea, emakumezkoen beharrak eta interesak aintzat har daitezen proposamenetan eta politikan.

4.2.6

Osagarritasuna eta koordinazioa

Udalak bultzatutako lankidetzak eta garapenerako hezkuntza GGKEek eta lankidetzako beste eragile batzuek gauzatuko dutenaren osagarri izan behar dira. Lan egingo dugu, elkarrekin

aurrera egin dezagun, sinergiak lortze eta lortutako eraginak maximizatzeko aldera, eta denboran eta gaitan ez gainjartzen saiaturiko gara. Orobat, eragileen arteko koordinazioa sakontzea beharrezkoa da, zatiketa eta kostuak murrizteko, bai eta gardentasuna eta eraginkortasun kolektiboa sustatzea ere. Horretarako, lehenik diren eztabaida-lekuak indartu behar dira; besteak beste: Lankidetzako Udal Kontseilua, Euskal Fondona GGKEen Koordinakundea, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko sail nahiz Lankidetzako Euskal Agentziaren bilera foroak.

4.2.7

Parte hartzea, kalitatea, eraginkortasuna eta gardentasuna

Donostiako Udaleko Lankidetzak Atalak, hain zuzen ere publikoa delako, gogoan izan behar du beti oso garrantzitsua dela bere ekintzak eta erabakiak publikoak, parte hartzezkoak eta gardanak izatea. Eta donostiarrak guztien ahaleginari esker bildutako diru publikoa kudeatzeko ardura duenez, funtsezkoa da zorrozki kalitate eta eraginkortasun irizpideak direnekin inbertitzea, bai zuzenean kudeatzen den partidan, bai zeharka kudeatzen denean. Garrantzitsua da, orobat, herritarrek jakitea lankidetzako zein ekintza egin diren udal funtsak erabiliz. Behar-beharrezkoa da datu publikoak eta eguneratuak izatea, herritarrek eta elkarten sareak aukera izan dezaten udal administrazioak lankidetzarako egindako ekarpenaren segimendua egiteko eta balioztatzeko.

Bestalde, elkarteek zein Udalak udalerrian eta udalerritik egiten dituzten lankidetzak ekintzetan gardentasuna izateak eta ekintza horiek hedatzeak, era berean, parte hartzea izan dadin laguntzen dute. Horrez gain, garrantzi estrategikoa dute agenda kolektiboan elkartasuna sartzeko, eta kontzientzia harrarazten duten eztabaida kritikoak eta eraikitzaileak bultzatzeko. Horretarako, sailaren web orriari ahalik eta etekin handiena aterako diogu, eta honek sare sozialetan duen presentziari.

Parte hartzeari lotuta, baldin lankidetzak proiektuetan herritarren parte hartzea ezinbestekoa dela aldeztu badugu, ulergaitza litzateke do-

nostiarren parte hartzea bultzatu nahi ez izatea beren Udaleko lankidetzaren politiketan, bereziki mundu bidezkoago eta berdintasun handiagokoa eraikitzeko gizartearen eraldaketan lanean ari direnen parte hartzea.

Alde horretatik, 2008an urrats handia egin zen, Lankidetzako Kontseilua –Udaleko lankidetzaren politikaren segimendua egiteko eta balioztatzeke eztabaida lekua– martxan jartzearekin. Kontseilu horretan bideratzen dira lankidetzaren arloan herritarrek Udal Administrazioari egiten dizkieten eskaerak. Gainera, Lankidetzako Udal Kontseilua funtsezko foroa da Udalaren lankidetzaren politikan gardentasuna izateko eta informazioa emateko konpromisoa betetzeko. Batzorde hori dinamizatu eta batzordearen funtzionamendua hobetzen jarraitu behar dago, eraginkortasuna eta parte hartzea maximizatzea, debatea indartzea, kontsentsua eta elkarrenganako ikastea helburu hartuta, izaera informatiboa gaindituz. Baina kontu izan behar da parte hartzaileak gehiegi ez kargatzeko, besteak beste, lankidetzaren kudeaketaren zama burokratikoaren ondorioz.

4.3 Interes bereziko arloak

III. plan honetan, aurrekoetan bezala, uko egin diogu lehentasun geografikoak ezartzeari. Udal erakunde txiki batek (Donostiak, esaterako) bultzatzen dezakeen lankidetzak, ez du izango inolako herrialde edo eremu geografikotako garapenari dagokionez funtsezko alderik sorrarazteko moduko eraginik. Orobat, gure iritziz, Nazio Batuen Garapenerako Programako Giza Garapenaren Indizeak, meritu handia duen arren per capita errentaren adierazlea zalantzan jartzeko eta analisi tresna gisa, engainagarria da garapenean laguntzeko lehentasunak ezartzeko orduan. Izan ere, giza garapenaren indize ertain-altua duten herrialde askoren barruan oso pertsona pobretuen komunitateak edo kolektiboak daude (Latinoamerikako herrialde askotan hainbat biztanle eremu daude batez ere indigenez osatuak), eta eremu horiek inolaz ere ez dira lehentasunezko izango, baldin irizpidea giza garapenaren indizea

bada. Bestalde, gure aburuz, erakundeek lehentasun geografikoak ezartzeak GGKEak bultzatzen dituen lehendik ezagutzen dituzten eremuak ez diren beste toki batzuetan lanean hastera. Horrez gain, Hegoko kideekin itunak egitera ere eramaten ditu, baina, beharbada, oinarri nahiko sendorik gabe, eta, batzuetan, konplizitate sendoa eta benetakoa eratzeko denbora nahikorik izan gabe. Hortaz, zentzuzkoago iruditzen zaigu GGKEek beraien lanean jarraitzea ondoen ezagutzen dituzten eremuetan, hainbat urteko eskarmentua eta lotura sendoak eta konfiantza oinarritutako harremanak dituzten kideekin, eta ondoen ezagutzen dituzten eta beren burua erosoan ikusten duten arloetan. Hartara, sinergiak sortzen dira, eragin handiagoa izaten da eta eremu bat sakon ezagutzeak eta bertako kidearekiko ezagutza eta konfiantza lotura izateak dakarren abantaila aprobetxatzen da.

Sektoreei dagokionez, eta diru laguntzen deialdiari lotuta, plan honen asmoa ez da esku hartzeko sektore jakin batzuk lehenestea. Izan ere, hori GGKEen lanean eskua gehiegi sartzea dela joko genuke, beste behin ere. Dena den, Udalak interes berezia du besteak beste honako helburu hauek dituzten proiektuak babesteko: giza eskubideak sustatzea eta bermatzea, parte hartzea, komunitateak indartzea, genero berdintasuna, elikadura burujabetza eta kontsumo kontzientea eta arduratsua. Interes hori praktikan erakusteko, batetik, gehiago balioetsiko dira proiektu horiek diru laguntzen deialdiko baremazioan; eta, bestetik, gai horiek lehenetsiko dira, sailak antolatuko duen sentsibilizazio eta garapenerako hezkuntza jarduerak diseinatzeke orduan.

Aurreko Planaren ebaluazioan diru laguntza deialdietako interes bereziko alorren baremazioak nahasmena sortu zuenez, berrikusi egingo da, nahasmen hori argitzeko.

4.3.1 Giza eskubideak

Donostiako Udalak eskubideak ardatz dituzten ekimenak eta garapen programak babesteko asmoa du. Zehazki, gizakia beren azterketan erdigunean jarriko dutenak, eta giza eskubideak defendatzea eta bermatzea oinarri izango du-

tenak, kasuan kasuko komunitatearen edo herrialdearen garapen maila alde batera utzita. Lankidetzako esku hartzeen helburu nagusiak pertsonen eskubideak bermatzea eta pertsonak eta herriak ahalduntzea izan behar du, eta ez soilik oinarrizko beharrak betetzea.

Giza eskubideak zentzurik zabalenean hartzen ditugu, alegia, hiru eskubide belaunaldiak hartzen ditugu barnean: zibilak eta politikoak; ekonomikoak, sozialak eta kulturalak; eta elkartasunezkoak. Arreta berezia jarri beharko da, emakumezkoek eskubide horiek guztiek izan eta balia ditzaten, eta beharrezko neurriak hartu beharko dira, hala izan dadin. Gainera, berariaz emakumezkoenak diren eskubideak defendatzea eta bermatzea kontuan izango dugu, hala nola, indarkeriarik gabeko bizimodua izateko eskubidea, sexu eta ugalketa eskubideak, haurdunaldiari eta erditu osteari loturiko eskubideak, eta abar. Eskubide horiek banakakoak zein kolektiboak dira, hau da, emakumeen, gizonen zein herrien eskubideak dira, tokiko kultura nortasunak eta kultura aniztasuna errespetatzea elkartasun internazionalistaren nortasun ikurra baita.

Eskubideen jabe aktiboen artean, bereziki haurrak aipatu behar ditugu, adinarengatik baztertzeko eta desabantailan egoteko aukera handiagoak dituzte eta; areago neskatilek, generoagatiko bazterketa ere pairatzen baitute. Ez dago ahazterik ahulenak direla, zaurgarriak, eta neska-mutikoak eta nerabeak direla pobrezia, aldaketa klimatikoak edota gizarte bazterkeriak gehien jotzen dituen kolektiboa, bai Hegoalde globalean, bai Iparralde globalean. Haurren eskubideak bermatu beharra dago (bai eta, bizirik irauteko eta garatzeko eskubidea bermaturik ez duten tokietan, haien gutxieneko beharrianak ase ere), belaunaldien arteko pobrezia-aren sorgin-biribila behingoz apurtzearen, pobrezia eta bazterkeria kroniko bilaka ez daitezten. Izan ere, neska-mutiko eta nerabeek orain nozitzen dituzten gabezien eraginak iraun badirau gaurkoak harago, pertsonaren garapen kognitiboa eta psikomotrizitatea baldintzatzen dituen heinean.

Era berean, aipamen berezia egin nahi diogu LGTTBIQ kolektiboari, egunerokoa indarkeria

eta diskriminazio ekintzak jasaten baitituzte duten aukera sexualarengatik. Giza eskubideen urratzeak ere jasaten dituzte, indarkeria homofobia barne, hilketak, bortxaketak, atxiloketa arbitrarioak, lantokian diskriminazio orokorra, eta oinarrizko zerbitzuetara sartzerakoan, etxebizitza eta osasun laguntza zerbitzuetan bezala. 70 herrialde baino gehiagotan legeak delitutzat jotzen du homosexuala izatea, eta beraz milioika pertsona atxiloketa, espetxeratze edota, zenbait kasutan, exekuzio arriskuan dago.

4.3.2

Komunitateen parte hartzea eta indartzea:

Benetako giza garapena, alegia, pertsonak eta herriak eraldaketaren xede izango dituen, lortu nahi duen ekintza orok herritarren bertako gaitasunen indartzea eta parte hartzea eta antolaketa sustatzea bultzatu behar du. Bereziki, bermatu behar da emakumezkoen parte hartzea erraztuko duten baldintzak sortuko direla, emakumezkoen beharrak eta interesak aintzat har daitezten proposamenetan eta politikan. Horrek isla du herri onuradun kontzeptutik herri subjektu edo eragile kontzeptuetarako eboluzioan, lankidetzan.

Beraz, III. plan honek parte hartze benetakoa eta eraginkorra bultzatuko duten ekimenen alde egiten du. Parte hartze horretan, emakumezkoen eta gizonezkoen botere hartzerako laguntza emango da, banaka zein era kolektiboan, bai eta oinarrizko gizarte erakundeenerako ere, eta horren bitartez, herriei gaitasunak sortzen, zaurgarritasuna murrizten eta autodeterminazioa eratzen lagunduko zaie.

4.3.3

Genero berdintasuna

Genero berdintasuna zeharkako lerroa da. Donostiako Udalak interes berezia du helburu nagusi genero berdintasunaren alde egitea duten ekimenak babesteko. Genero berdintasunatzat jotzen dugu, batetik, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna baliabideetarako sarbidean eta haien gainera kontrolean, eta, bestetik, emakumezkoek eta gizonezkoek bal-

dintza berdinetan parte hartzea ekonomian, politikan, gizartean eta kulturaren. Pobreziak eragin handiagoa du emakumezkoengan gizonezkoengan baino, eta eragin hori larriagoa eta iraunkorragoa izaten da, gainera. Errealitate horren aurrean, gogoan izan behar da erresistentziarik sendoenak eta ekimen sortzaileenak eta berritzaileenak, askotan, emakume antolatuek egiten dituztela, pertsonen ongizatea lehentasiko duen sistemara iragatearen alde lan egiten duten emakume aktibistek. Bestalde, gero eta gizonezko gehiago ari dira antolatzen, dagokien zatia lantzeko, alegia, maskulinitasun hegemonikoaren eredia alde batera uzteko eta berdintasun handiagokoak izango diren maskulinitate berrietarantzko bidea egiteko. Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko botere harremanak aldatzeko, lehentasunez egin beharrekoa emakumezkoen botere hartzearen alde lan egitea da; baina garrantzitsua da, orobat, gizonak era aktiboan sartzeari aldaketa horretara.

Donostiako Udalak bere egiten du borroka hori, eta gaur egun desberdintasun handienak dauden eta berariaz honako xede hauek izango dituzten ekimenak babestuko ditu: indarkeria matxistaren aurkako borroka bere forma guztietan, ahalduntze ekonomiko eta soziala, emakumezkoen parte hartzea politikan, emakumezkoen sexu eta ugalketa eskubideak sustatzea, eta maskulinitate hegemonikoa deseraikitze eta berdintasunezko maskulinitate eredu berriak sustatzeko ekimenak.

4.3.4

Kontsumo eta ekoizpen kontzientzia eta arduratsua

Donostiako Udalak era berezian babestuko ditu, batetik, kontzientzia kritikoaren sustapena eta ezagutza bultzatuko duten ekimenak, eta, bestetik, kontsumo arduratsuen eta kontzientzearen alde egingo duten jarrerak, besteak beste: kontsumo etikoa, ekologikoa eta elkartasunezkoa, bankugintza etikoa barne. Horrez gain, laguntza emango du sistema bidezko eta solidarioagoa (bankugintza etikoa, bidezko merkataritzako saltokiak eta tokiko kontsumoko taldeak, adibidez) lortzearen bitartez konpromiso hori hezurramitzeko tresnak donostiarren esku-

ra jarriko dituzten ekimenetarako ere. Hartara, aurrera egingo dugu, batetik, hemen zein han benetako giza garapen sostengagarria lortzeko bidean; eta, bestetik, kontsumitzaileen zein ekoizlearen eskubideak bermatzeko lanean. Izan ere, baldin ekoizleak bidezko ordainsaria jasotzen badu baldintza duinetan egindako lanaren ordainetan, kontsumitzaileak kalitatezko produktuak izango ditu, langileen lan eskubideak errespetatu eta ingurumena zaindu direlako bermearekin.

4.4 Zehar lerroak

Zehar lerroak Giza Garapenak berezko dituen alderdiak dira, eta behar-beharrezkoa da lerro horiek era esplizituan sartzeari giza garapenean laguntzea xede duen edozein esku hartze edo ekintza planifikatzeko, diseinatzeko, martxan jartzeko, segimendua egiteko eta balioztatzeko prozesuetako aldi guztietan. Nazioarteko adostasuna jarraituz, ezin da Giza Garapenaz hitz egin genero berdintasunik, ekologia iraunkorrik, eta giza eskubiderik gabe.

4.4.1

Genero berdintasuna

Ezer ez da neutrala, generoaz ari garenean. Genero ikuspegiarik gabeko proiektu batek emakumezkoek gizonezkoekiko duten posizioa kaltetzen du. Proiektu guztiek, baita proiektu teknikoek ere, genero dimentsioa dute, gizonezkoentzat, emakumezkoentzat edo bientzat direlako, eta beti izango dute eragina beste generoan. III. plan honek bere egiten du Genero Garapenean (GG) estrategia. Estrategia horrek konpromisoa eskatzen du genero harreman bidezkoak sortzeko. Horrez gain, beste garapen aukera bat aldarrikatzen du, xede oinarri demokratikoen, parte hartzezkoen eta berdintasunezkoen gainean egituraturako gizartea duena, eta non emakumeak ez diren kolektibo zaurgarri eta pasibotzat (laguntza ikuspegia) edo baliabide erabilgarritzat (MED ikuspegia) joko, aldaketaren eragile aktibotzat baizik. Izan ere, emakumezkoek protagonista izan behar dute,

bai garapenerako estrategiak eta politikak diseinatzean, bai proiektuen plangintza, kudeaketa eta ebaluazioa egitean. Eta, horrez gain, gizonen aukera berdinekin parte hartu behar dute beraien ere eragina duten erabakiak hartzen diren tokietan. Hala izan dadin, baldintza egoikiak eskaini behar zaizkie.

5. Garapen Iraunkorreko Helburua jarraituz, Donostiako Udalak honako ekimen hauek baino ez ditu babestuko: genero berdintasunaren ikuspegia dutenak, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunik ezak aztertzea abiapuntu dutenak eta berdintasun eza horiek gaingiditzeko neurriak proposatzen dituztenak.

4.4.2

Ekologia eta giza iraunkortasuna

Politika publikoen lehentasunezko helburu izan behar du planeta eta bertako ekosistemak zaintzea, bai Iparrean, bai Hegoan. Ekologia iraunkortasuna, gainera, giza garapenaren bezeko alderdia da. Alde horretatik, lankidetzak funtsezko eginkizuna du analisi kritikoak sustatzeko orduan, eta natura eta ekosistemek gizateariari ematen dizkieten ondasunak eta zerbitzuak zainduko direla bermatuko duten aukerak erakitzerakoan.

Beraz, bai lankidetzak ekimenetan, bai garapenerako hezkuntza ekimenetan, bermatu behar da ez direla kaltegarri izango ekologiarako eta, ahal den neurrian, ingurumen oreka mantentzearen alde egin behar da, eta natura babesteko jarduteak eta jarrera aldaketak egiten lagundu behar da.

Alabaina, iraunkortasunaren nozioa, ulertzen dugun moduan behinik behin, ekologikoa baino areago da, giza garapenaren kontzeptua bera ere bere baitan hartzen du eta: "garapen iraunkorra aldaketa prozesu bat da, erdigune eta funtsezko xedetzat gizakia hartzen duenez gero haren bizi kalitatean progresiboki gauzatzen dena; hartara, ekitate sozialarekin eta ekoizpen metodoen eraldaketarekin batzen du hazkunde ekonomikoa, betiere oreka ekologikoan eta eskualdeko bizi euskarrian oinarriturik. Prozesu honek, bada, eskualdeko, nazioko eta tokiko aniztasun etniko

kulturalaren errespetua dakar, bai eta herritarren sendotzea eta parte hartzea ere, elkarbizitza baketsuan eta naturarekin bat, datozen belau-naldien bizi kalitatea arriskuan jarri beharrean bermatzen duelarik".²

4.4.3

Giza eskubideak

Nazioartean adostasun zabala dago giza eskubideak sustatzea eta pobreziaaren aurkako borrokaren erlazio zuzena babesten duena. Gainera, bi helburuak elkarren artean indartzen dira. Giza Eskubideek, bestalde, araudi esplizitua dute, zilegitasun sozial eta politikoko indartsuarekin, eta herrialde gehienek onarpenarekin. Donostiako Udalak eskubideen ikuspegia ez duen garapenik ez du ulertzen. Horrela, garapenaren helburua giza eskubide guztien berme eraginkorra da, eta pertsona guztientzat. Beraz, pertsonak euren eskubideak aldarrika ditzaten beharrezkoak diren gaitasunak indartzeko ekimenak lagunduko ditu, eta zehazki emakumezkoenak, sistema patriarkalak oraindik ere kokatzen dituen mende-kotasun egoera dela-eta. Gainera, obligazioak eta ardurak dituzten pertsona eta erakundeek horiek bete ditzaten eskatuko du. Lankidetzako ekintza guztiek subjektua den herria eskubide eta askatasunen agente titular moduan hartu behar dute, eta ez onuradun bezala.

Giza eskubideen burutzeak garapenaren oinarritzko helburua izan behar du, eta lankidetzako ekimenek zerbitzu ematea beti osatu behar dute bizimodu egoki bat disfrutatzeke behar diren eskubideak erreklamatzeko eta erabiltzeko gaitasunen garapenarekin.

2 Alides, 1994.





nola egingo dugu?

5.1 Parte hartzea

Herritarren eta gizarte eragileen parte hartzea funtsezkoa da Donostiako Udaleko lankidetzaren politikak zehazteko, bai eta Lankidetzaren Atalaren eguneroko lanerako ere; eta, era berean, Udaleko jardueraren arlo guztiak tartean sartzen dituen estrategia handiagoaren zati ere bada. Estrategia hori herritarren parte hartzerara bideratuta dago, udal politiken eta horien garapenean eragiteko aukera izan dezaten.

5.1.1

Lankidetzako Udal Kontseilua

Garapenerako Lankidetzaren eta Hezkuntzako Aholku Kontseilua Donostiako Udaleko partaidetzarako kontseiluen sarearen barruan dago, eta xede du herritarren partaidetzaren egituren arteko harremana antolatzea. Lankidetzaren eguneroko aritzen diren erakundeekin kontaktua eta elkarrizketak izateak, dituzten eskaera, erreibindikazio, hausnarketa eta ekimenen berri izaten uzten digu. Horretarako, Lankidetzaren Udal Kontseilua marko aproposa da, eta hainbat ikuspegi eta proposamen dituzten eragile ezberdinak biltzen ditu.

Kontseiluari ahalik eta etekin handiena ateratu nahi diogu, bere eraginkortasuna eta planifikazioa indartu, eta parte hartzea hobetu nahi dugu, kuantitatiboki zein kualitatiboki, eta kontseiluaren ekintzek eta jarrera hartzeek donostiarrengan izango duten eragina.

5.1.2

GGKEen Koordinakundea

GGKEen Koordinakundearen helburu nagusiak dira, besteak beste, ekintzak koordinatzea baterako jarduerak egitea eta gogoetarako espazio komunak sortzea. Sareak eta plataformak indartzeko eta lankidetzaren eragileen arteko koordinazioaren alde egiteko politikarekin jarraituz, aurrerantzean ere erakunde gaitzako erakunde horri laguntzeko asmoa dugu, elkarre mugimenduen zati handiarekin elkarrizketarako aukera pribilegiatua eskaintzen baitugu. Horrez gain, koordinakundearekiko elkarrizketa ere indartu nahi dugu, lankidetzaren egoerari eta lankidetzaren arloan lanean diharduten erakundearen egoerari buruzko gogoetak partekatze aldera.

Zehazki, Donostiako Udalak GGKEen Koordinakundearekin lankidetzaren hitzarmen egonkorra du, duela zenbait urtetik hona. GGKEen Koordinakundeak Donostiako ia 40 GGKE biltzen ditu eta, gainera, funtsezko eginkizuna du bai erreferente gisa bai Donostiako Udalaren hizketakide gisa ere, lankidetzari loturiko gaietan. Hortaz, maila horretako entitateari babes ematea estrategikotzat jo dugu, eta entitate hori babestuko dugu aurrerantzean ere, hitzarmen zuzenaren bidez. Horrez gain, Udalaren lokal bat koordinakundearen esku utziko dugu.

5.1.3

Itunak beste sare eta plataforma batzuekin

Donostiako Udalak sare eta plataformekin itunak egiteko asmoa du, funtsean, Lankidetzaren Atalaren eraldaketa sozialerako ekimenen programazioa era bateratuan diseinatze eta koordinatze aldera. Zero Pobrezia plataformak aipamen berezia merezi du, Donostian egin duen ibilbide luzeagatik eta barnean biltzen duen erakunde kopuru handiagatik. Urriaren 17, pobrezia errotik kentzearen aldeko nazioarteko egunean, plataforma horrek jardueraren programa bat antolatzen du urtero. Hainbat eta hainbat gai jorratzen ditu jardueraren horiei esker, betiere gizarte bidezko eta solidarioagoa lortzeko alderako globalaren alde. Donostiako Udalak jardueraren horietan laguntzen du. Emakumeen Etxearekin dugun beharrezko aliantza ere azpimarratu behar dugu,

feminismoei eta genero ikuspegia lankidetzeta eta eraldaketarako hezkuntzan gaiekin lotuta.

5.2 Jarduteko moduak

5.2.1

Garapenerako lankidetzeta

III. Gida Plan honen asmoa da garapen programak bultzatzea, hain zuzen, Donostiako zein herrialde pobreetako GGKE ordezkarien eskaera zuzenari erantzunez, Giza Garapen Sostengagarriaren paradigman epe luzeko prozesuetan lagun egingo dutenak; eta plan honetan lehen-tasunezkoztat jo diren zehar lerroak partekatuko dituztenak. Hego globalaren garapenerako lankidetzeta programa horiei laguntzeko, 5.3. atalean azaldutako tresnetako edozein erabil daiteke.

5.2.2

Gizarte eraldaketarako hezkuntza (GEH)

Garapen desberdinaren arazoa mundu mailan pertsona eta gobernu guztiei axola zaiela abiapuntu bezala hartuz, eta elkartasunaren globalizazioa bultzatzeko asmoz, ondoko gaie-tako formakuntza ekintzak bultzatuko dira: herritar arduratsuak eta Planetaren justizia eta iraunkortasunarekin konprometituak izateko ekintzak, errespetua eta dibertsitatearekiko estimua giza aberastasunaren iturri bezala, ingurumena eta kontsumo arduratsuen defentsa, banakako eta taldekako giza eskubide guztien errespetua, genero berdintasuna, elkarrizketa gatazkak modu baketsuan ebazteko tresna gisa, parte hartzea eta erantzunkidetasuna, eta gizarte bidezko, berdinean eta solidarioa eraikitze konpromisoa.

Horretarako, modu zuzen edo ez zuzenean sentsibilizazio programak (desberdintasunen eta inpaktuen inguruko oinarriko informazioa, eta lankidetzeta ekintzak, gehienbat gizarteari

orokorrean zuzenduta), edo kontzientziazio edo hezkuntzakoak (definitutako taldeei zuzendutako prozesuak, egokitutako metodologiekin, pobrezia eta desberdintasuna sortzen duten kausetan sakontzeko eta kontzientzia kritikoak eta konpromiso aktiboak sortzeko) lagunduko dira. Eragina eta mobilizazio soziala faktore gakoak dira lortu nahi dugun kontzientzia kritiko kolektiboan aurrera egiteko. Horretarako, oinarriko eragileak dira, GGKEez gain, gizarte mugimenduak edo hezkuntza komunitatea.

Donostiako Udalak Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren (H)ABIAN 2030 euskal Estrategiarekin, eta bertatik ondorioztatzen diren 8 konpromisoekin bat egin du:

1. Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza (GEH) bultzatzeko konpromisoa hartzen dugu, pentsamendu kritikoak eragiten duena, pertsona kontzienteak, ahaldunduak eta arduratsuak sustatzen dituen gizarteari eta bizitzari berari dagokienez, eta hartara, bizi dugun errealitatea eraldatzea lortu nahi duen herritartasun globala eratzen duena.
2. Gure ikuspegi pedagogikoak kritikoak eta sozio-afektiboak izango dira, parte hartzea bultzatuko dute, pedagogia feministak txertatuko dituzte, bizitzaren jasangarritasuna eta subjektibotasuna txertatuko dituzte, baita dibertsitateen kudeaketa eta zapalkuntzen intersekzionaltasuna ere.
3. Eskubideen ikuspegia funtsezko elementua izango da gure proposamen pedagogikoetan, eta eskubide eta erantzukizunak identifikatuko ditugu.
4. Errealitate desberdinen arteko elkarren mendekotasuna eta lotura izango dira gure jardunbideak sustatuko dituzten elementuak.
5. (H)ABIAN 2030 estrategiak proposatutako GEHko estrategiari ekarpenak egiteko erantzunkidetasuna geure egiten dugu, ekintza-plan, jardun eta baliabide espezifikoekin bitartez.
6. Etengabeko ikaskuntza sustatuko dugu geure jardunbideak aztertuta.

7. GEHko gure esperientzia eta ikaskuntzak partekatze konpromisoa hartzen dugu, gure jardun eta proposamenak hobetzeko.

8. (H)ABIAN 2030 estrategiaren esparruan sortzen diren jarraipen- eta ebaluazio batzordeetan parte hartzeko konpromisoa hartzen dugu.

GEHko programa hauek 5.3 atalean definitzen diren edozein tresnaren bidez gauzatu ahal izango dira.

5.2.3

Ekintza humanitarioa eta larrialdizko laguntza

Krisi humanitarioek sortzen duten giza sufri- mendua (natura hondamendiek, gatazka bel- likoek, edo ingurumen arazoez sortuta) gero eta handiagoa da. Panorama mingarri honi, ekintza humanitarioek eta larrialdizko laguntzek azken urtetan jasan dituzten aurrekontu murrizketa inportanteak gehitu behar zaizkio. Horregatik, Donostiatik herri ahulenak ez ahazteko apustua egin nahi du, eta urtero partida bat bideratuko du gai hauek laguntzeko: ekintza humanitarioak edota larrialdiak, bizitzak salbatzea helburua duten proiektuak, sufri- mendua arindu, eta biktimen eskubideak babestu edota haien duintasuna bermatzeko. Partida hori GKEekin, elkarte edota Nazio Batuen erakundeekin hitzarmenak sinatuz kudeatuko da, urtero Udal Lankidetzaren Atalarekin kontratatuko diren irizpide batzuetan oinarrituz. Posible den heinean, erakundeen arteko koordinazioa lortzeko ahalegina egingo da laguntzen diren ekintzen inpaktua handitze- ko, eta erakundeen arteko funtsak sortzeko lan egingo da, partida hauen kudeaketa hobetu eta azkartzeko asmoz.

Bestalde, 5.3.2.2 atalean azaltzen den moduan, Saharako herriari laguntzeko zenbatekoaren zati handi bat ekintza humanitariora bideratuta dago, herri honek sufritzen duen babes baldin- tza bereziak direla-eta.

Edozein kasutan, partida hauek beti osatuko dira sentsibilizazio eta kontzientzia kolektibo-

rako ekintzekin, eta dirua jasotzen duten krisi humanitarioak sortzen dituzten arrazoien berri emango da.

5.2.4

Eragina Udalean

4.2.3 atalean (Erantzunkidetasuna eta kohe- rentzia) azaldu bezala, gai hauekin lotutako ekimenak jarriko dira martxan: erosketa pu- bliko etikoa, bidezko merkataritzaren sustapena, bankugintza etikoaren bultzada eta paradisuko fiskalen aurkako borroka.

Erosketa publiko etikoa inpaktu izugarria duen tresna da, estatu mailan kontratazio publikoak BPGaren % 18 baino pixka bat gehiago har- tzen baitu. Datu hori udal mailara ekar daite- ke, inpaktuaren tamaina agerian utziz. Gainera, zentzugabea litzateke administrazio publikoak herritarrengan balio batzuk sustatzea, gero bere eguneroko funtzionamenduan aplikatuko ez ba- ditu.

Horregatik, urte batzuk dira, Donostiako Uda- lak Kontratazioetan irizpide sozialak, etikoak eta ingurumen, lan eta berdintasun irizpideak txer- tatzeko emandako jarraibideak dituela. Jarraibi- de horiek udal erosketa eta ondasun eta zerbi- tzuen kontratazioan, produktua edo hornitzailea hautatzerakoan, ingurumen, gizarte, etika, lan eta genero berdintasuneko irizpideak kontuan hartzeko dira.

Jarraibide horiek betetzen diren ikusteko, Ja- rraipen-batzorde bat sortu da, eta Lehendakari- tza alorreko teknikari bat dago pleguak azter- tzeko. Esaterako, 2016an, Bidezko Merkatarit- zako produktuak erabiltzeagatik puntu gehiga- rriak emateko klausulak sartu dira Ondarretako hondartzan dagoen kiosko-taberna eta Santa Klara uhartearen taberna ustiatzeko emakiden pleguetan. Bestalde, Bidezko Merkataritzako produktuak udal lantokietan dauden edari ma- kinetan nahitaez eskaintzeko araua sartu da, eta DSS2016ren EMUSIK ekitaldiko parte hartzaileei ematen zaien gosari produktuetatik gutxienez bat Bidezko Merkataritzakoa izan beharko da.

Datozen urteetan zehar, erosketa publiko etikoa eta gorago aipatu diren beste lerro batzuk

bultzatzen jarraituko da, (bidezko merkataritza, bankugintza etikoa, paradisu fiskalen aurkako borroka), aurrerago zehazten diren tresna eta ekimen ezberdinen bidez. Horietako batzuk berritzaileak izango dira; esaterako, teknikariei irizpide sozial eta etikoetan formakuntza ematea erosketa eta kontratazio txikietarako, edo Donostia "Paradisu fiskalik gabeko gune" izendatzeko mozioa.

5.3 Tresnak

5.3.1

Lehia askeko diru-laguntzen deialdi publikoa

Aurreko planean bezala, honetan ere Donostiako GGKEak izango dira Udal Lankidetzaren lehentasunezko eragile. Aurrerantz ere, prestatutako finantzaketa ildoak honako hauek izango dira: diru laguntzetarako aldi behingo deialdiak (lehia askea) eta diru laguntza zuzenak.

III. Gida Plan honek jarraipena eman nahi dio diru laguntzen arloan gaur egun jarraitzen zaion ildoari, hainbat alderditan: deialdia urteko lehen hiruhilekoan argitaratzen jarraitu nahi dugu (egonkortasun hori mantendu nahi dugu); aurrekontuaren % 70 lankidetzara bideratu nahi dugu, eta % 30 gizarte eraldaketako ekimenak egitera; eta GGKEei lana errazteko tramiteak sinpletzen jarraitu nahi ditugu.

Nahiz eta deialdia urtekoa izan, errealitatea sakon ezagutzeari eta tokiko kontrako alderdiarekiko harreman luzea izateari esker sortuko diren garapen ekintzak, egonkorak eta epe luzeko prozesu izango direnak, babesteko gogoia dugu. Lankidetzan, ez da zentzuzkoa soilik uenean neko ekintzetan laguntzea. Atomizazioa (proiektu txiki sakabanatuak ugaritzea, denboran jarraitutasunik gabe) da udal lankidetzaren arriskueta bat. Jakitun gara urteko deialdien karga burokratikoa handia dela, eta horrek denbora eta ahalegina eskatzen dizkie GGKEetako langileei, eta denbora eta ahalegin hori laguntzaren ka-

litaterako garrantzitsuago diren beste zeregin batzuetatik (hala nola, identifikazio partaideztaduna, proiektuen segimendua edo proiektuak balioztatzea) kendu behar izaten dute. Horregatik, eta, diru kopuru txikia dugunez hainbat urtetarako proiektuen deialdiak egitea egingarri ikusten ez dugun arren, neurriak bai, neurriak hartuko ditugu, horrelako prozesuak babes daitezzen. Esate baterako, puntuazio handiagoa emango diegu mota horretako programei, eta aurreko urteetan babestu ditugunak lehenetsiko ditugu, betiere baldintzak betetzen badituzte.

Bestalde, babestuko ditugun ekintzak kalitatezkoak izan daitezela eskatuko dugu aurrerantzean ere, eta baterako proiektuak, partzuegoak eta sareak sustatuko ditugu, batez ere garapenerako hezkuntzan, eraginkortasuna areagotu dadin eta Donostiako elkarte mugimenduan sinergiak sor daitezzen.

Diru laguntzen deialdiak Donostian benetako agerpena duten eta egoitza soziala bertan duten erakundeentzat izaten dira, eta hori hala dela ziurtatzeko, neurri zehatzak hartuko ditugu.

Erakundeak berak nahitaezko segimendua eta balioztatzea egingo du (barnekoa, kanpoko edo mistoa, programaren tamainaren arabera), baina, horrez gain, Lankidetzak Atalak diruz lagunduko diren proiektuen segimendua egingo du.

Bestalde, azken urtetan diru-laguntzetako deialdietan erabilitako balorazio irizpide eta esleipenerako puntuazioan nahi gabeko efektu bat antzeman da. Hori dela eta, alor bakoitzean ematen diren puntuak metatzen direnez, alor guztiak lantzen ez dituzten kalitate handiko zenbait proiektu konparazioan alor guztiak lantzen zituzten beste batzuk baino puntuazio baxuagoa lortzen zuten. Horregatik, Planaren indarraldiaren lehen urtean, Lankidetzako Udal Kontseiluarekin batera lan bat egingo da, oinarriak sakon berrikusi, III. Plan honetan ezarri diren lerroekin eguneratu eta haztaperen mekanismoak ezartzeko, alor guztiak lantzen ez dituzten proiektu horiek ez zigortzeko.

Azkenik, Donostiako Udalak konpromisoa hartu du diru laguntzen deialdiaren zenbatekoa mantentzeko eta, ahal bada, handitzeko.

5.3.2

Udal lankidetzazuzena

5.3.2.1

Euskal Fondoak

Donostiako Udala Euskal Fondoaren (Euskal Tokiko Erakunde Lankideak Elkartea) bazkide da 1996. urteaz geroztik, eta parte hartze aktiboa du elkarteko gobernu organoetan. Gure iritziz, Euskal Fondoak eragile gakoak da Euskal Autonomia Erkidegoko lankidetzan, batetik, lan ibilbide luzea eta eskarmentu handia dituelako, eta ondo ezagutzen dituelako laneko toki dituen herrialdeak; eta, bestetik, hainbat udalerriri koordinatzeko egiten duen lanagatik. Hegoko udalerriekin zuzeneko lankidetzan jarduteko erarik egokiena hori dela jotzen dugu. Donostiak Euskal Fondoaren lana babesteko du aurrerantzean ere, lankidetzarako aurrekontuaren % 10 elkarte horri emanez, kuota barne. Lehentasunez, genero berdintasuna, giza eskubideak eta ingurumen iraunkortasuna ildoak zeharkako lerro moduan txertatzen dituzten proiektuak lagunduko dira. Bestalde, ekarpena, diru ekarpena ez ezik, lankidetzaz ere izan daiteke. Udalak zenbait proiektutan (Berdintasuna, Lankidetzaz eta Giza Eskubideen arloetan, lehentasunez) udaleko langileen bitartez, lankidetzaz teknikoak antola ditzake.

5.3.2.2

Estatuak ez duten edo beren lurraldearen alde borrokan ari diren herriei laguntzea

Donostiako Udalak berriaz lagunduko die beren lurraldea berreskuratzeko borrokan ari diren herriei.

Mendebaldeko Sahara oraindik deskolonizatu gabe dagoen azken herria da, eta natura aberastasun handiak ditu. Marokoarren okupazioaren mende daude 1975. urteaz geroztik, eta bertako biztanle gehienak Aljeriako basamortuko eremurik babesgabeenean daude aterpetuta: Tindoufeko kanpamentuetan (Aljeria). Herri aterpetu horiek, bai eta Marokok okupatuta dituen lurraldeetan bizi direnek, bizi baldintza penagarriak dituzte, eta eskubiderik oinarritzkoenak urratuta izaten dituzte. Eta Nazioarteko Komunitateak

utzikeriazko jarrera erakutsi du horren aurrean. Donostiak 1986. urtean hartu zituen lehen haur sahararrak, eta 1988an Bojadorko dairarekin senidetze hitzarmena sinatu zen. Hitzarmen horri esker, elkartasunezko harreman berezia sortu zen bi herrien artean, hots, Donostiaren eta Sahararen artean, eta harreman horrek bizirik dirau gaur egun ere. Udaro, hogeita hamar bat haur Donostiako familietan izaten dira. Eta, aldian-aldian, hiriko dozenaka lagun Tindoufeko kanpamentuetara joaten dira bisitan, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoak (SEAD) antolatutako elkartasun bidaiei esker.

Erro sakonak dituen harreman berezi hori dela eta, dagoen adostasun politikoari esker, eta, sahararrek, gatazka konpontzeko itzaropen handirik ez duten arren, bizi duten pobretze eta erresistentzia egoera salbuespenezkoa ikusita, sahararrekiko lankidetzarako urteko partida bat mantenduko dugu, diru-laguntza zuzenen bidez. Gainera, azken 10 urteetako Saharako herriarekiko lankidetzaz donostiarraren ebaluazioa egingo da, eta ondoren, lagundutako proiektuetan genero inpaktuaren adierazleak finkatuko dira, eta Saharako emakumeen ahalduntzeari zuzendutako berriazko laguntza partidak.

Bestalde, nazioartean gatazka konplexuena den israeldarren eta palestinarren arteko borrokan, egoera bidegabeak ikusten ditugu, eta nahiz eta hedabideetan etengabe agerian izan, betikotzen ari dira, nazioarteko komunitateak axolagabekeria eta geldotasuna baino ez baitu erakutsi. Alderdi askotatik kolonialismoaren jarraipena da gatazka hori, Ekialde Ertainean kolonialismo europarraren pean sortutako arazoetatik eratorria baita, eta Mendebaldeak berebiziko garrantzi geostrategikoa duen lurralde horretan bere txokoa mantentzeko beharra eta interesa da, oraindik ere, gatazka horren funtsa. Mendebaldearen laguntzari esker, Israelek palestinarren lurra okupatu ditu, eta kontrol militarpean ditu bertako biztanle arabiarra. Arabiar horiek atzerritar dira beren lurretan, eta urratuta dituzte beren oinarritzko eskubideak. Zisjordania eta Gaza okupatu izanak nazioarteko komunitatearen gaitzespena ekarri dio Israeli, baina Israel gai izan da bere erabakiak inposatzeko. Donostiako Udalak oinarritzko justizia kontutzat hartzen du krisi humanitario iraunkorra bizi duen

eta nazioarteko komunitateak aldiro-aldiro ez ikusi egiten dion herri horri laguntzea, eta lehentasunez laguntza emango dio herri palestinarri, diru-laguntza deialdian aparteko puntuazioa emanez eta salaketa eta sentsibilizazio jardueren bitartez, nagusiki.

Saharaz eta Palestinaz gainera, ez dugu ahaztu behar badirela beste indigena-herri asko ere, urte mordo handia daramatenak beren lurraldearen alde borrokan; hor dugu Chiapas, besteak beste. Konpromiso hori, diru laguntzen deialdian ere ikusiko da berariaz, eta baita salaketa eta sentsibilizazio ekintza batzuen bidez ere.

5.3.2.3

Garapenerako hezkuntzako gure ekimenak

Donostia Munduen Artean Lankidetzat Atalak egindako programa da. Gaur egun, bi hilabetez behin plazaratzen da, Donostiako GGKEek eta mozkin asmorik gabeko erakundeek egindako garapenerako hezkuntzako eta sentsibilizazio jardueren berri emateko, bai eta Lankidetzat Atalaren beraren ekimenak ezagutarazteko ere. Donostia Mundu Artean munduan zer ari den gertatzen jakiteko leihoa da, hain zuzen ere, programa horretako jardueren bidez honako hauek egiten baitituzte: hainbat errealitatearen kausak aztertu, gizarte globalizazioaren gaineko eztabaida eragin, indarrean diren balioak auzitan jarri eta beste informazio aukera bat eman. Horrez gain, elkartasun agenda ere bada, eta hitzaldiak, jardunaldiak, ikastaroak, antzerki lanak, kontzertuak, eztabaidak eta filmak antolatzen ditu Donostian, bai eta herrien arteko berdintasunik eza eta pobrezia eragiten dituzten kausez jabetzea sustatzeko beste hainbat jarduerarekin.

Hona hemen programa horren helburuak: donostiarrei beste informazio aukera batzuk ematea; aisialdi hezitzaile eta ordekoaren agenda izatea; jarrera kritiko eta eraldatzailea sustatea; beste mota bateko gizarte bilatzeko konpromisozko jarrera hartzea ahalbidetuko duten elkartasun balioak bultzatzea; herritarrak Hegoko herrialdeetako errealitateaz eta guk errealitate horietan dugun inplikazioaz jabetzea; eta herritarrek, gizarte eraldatzea ahalbidetuko duen

gizarte ehun konprometitua, dinamikoa eta kritikoa sortzearen bidez, parte hartze aktiboa izan dezaten sustatzea.

Programa hori, gainera, oso ontzat jo dute egindako ebaluazioetan, bai ebaluazio formaletan, bai informaletan. Horrez gain, Donostia berezi egiten du, inguruko beste hiri batzuetan ez baitago elkarrekin jarduerak hedatzen laguntzeko sistemarik. Beraz, programa horrek aurrera jarraitzearen alde egiten dugu.

Bestalde, Lankidetzat Atalak Donostian gizarte eraldatzeko ekintzak programatzera bideratuko du jarduerarekin, eta lehentasunez jorratuko ditu normalean GGKEek landu ohi ez dituzten gaiak (gainjartzerik izan ez dadin) eta III. Gida Plan honetako lehentasunekin bat datozenak. Honako gai hauei loturiko gaiak lehenetsiko ditu: nazioarteko koiuntura politikoaren ulermena, kontsumo kontziente eta arduratsuen sustapena eta hiritartasun globalaren balioen sustapena. Ahal dugun guztietan, baterako lana egiten eta lankidetzan jarduten saiatuko gara, batetik, udaleko sailekin eta, bestetik, askotariko gaietan aktibo diren sare eta plataforma sozialetan.

Horrez gain, ezin dugu aipatu gabe utzi memento honetan dagoen eta, zoritxarrez, Plan honen indarraldian gertatzen jarraituko duen krisi humanitarioa: Siria eta gatazka egoeran dauden beste herrialdeetako aterpetuen helduera masiboa. Ez da munduko katastrofe humanitario bakarra, baina bai jasanezinen zaiguna, gertutasunagatik. Europa osoa ebidentzian gertatzen ari da, eta ikusteko dago herritarrak beste alde batera begiratzen jarraituko ote dugun, eskualdearen garrantzia geostrategikoa dela eta, kanpotik sustatutako gerrak sortu duen dramaren aurrean. Urte hauetan zehar, pertsona iheslarien egoera, eta horien desplazamendua eragin duten arrazoiak Lankidetzat Atalak Kultura Dibertsitatekoarekin lankidetzan GEHN egiten dituen jardueren gai nagusia izango dira. Posible den guztietan, Donostian aterpetuak babesten dituzten bestelako sare eta gizarte plataformekin ere egingo dira.

Orobat, lankidetzari loturiko prestakuntza ematen jarraituko dugu entitateetako bolunta-

rioei eta liberatuei, erakunde publikoetako teknikariei, eta herritarrei, oro har.

Horrez gain, giza eskubideak urratuta dituzten herriei eta komunitateei laguntzeko lan egingo dugu politikaren arloan, honako jardura hauen bitartez: Udalbatzari erakunde adierazpenak proposatuta, egun berezietan udaletxean banderak jarrita eta gatazka egoeran dauden lurraldeetara —Palestinara eta Mendebaldeko Saharara, bereziki— joateko ordezkariak antolatuta, azken hori Euskal Fondoarekin lankidetzan.

5.4 Baliabideak

5.4.1

Talde teknikoa

Gainerako politika publikoetan gertatzen den bezala, lankidetzako politikak gauzatzeko eta funtsak kudeatzeko ardura duten pertsonak behar bezalako gaikuntza izan behar dute eta lan horiek egiteko prestatuta izan behar dira. Horrez gain, motibazio handia izatea ere ezinbestekoa da. Gaur egun, talde teknikoa osatzen duten kide gehienak bitarteko langileak dira, baina 8 urtetik 12 urtera bitarteko eskarmentua dute Lankidetzako Atalean eta, beraz, lanaren gaineko ezagutza eta heldutasun handia dute.

Funtsezkoa da talde teknikoak lankidetzako tresnen eta pentsamendu joera berrien gaineko ezagutza eguneratua izatea, eta Donostiako elkarte sarea, sarearen egoera, lorpenak, beharrak eta eskariak sakon ezagutzeko. Horrenbestez, plan honetan langileei etengabeko prestakuntza ematearen alde egingo dugu.

5.4.2

Aurrekontua

Gizarte gastua mantentzearen alde egitea garrantzitsua da, eta hala egin behar da, gizarte

gastuak laguntzen baitu pertsonen baldintzak berdintzen eta bizi kalitatea hobetzen. Eta Donostiako Udalak testuinguru horretan kokatzen du lankidetzako, alegia, giza duintasunaren alde borrokatzeko berariazko modua, gure mugetatik haratago. Hori guztia egiteko konpromisoa hartu zuen Udalbatzak 2010ean, Pobreziaren Aurkako Ituna sinatzearekin. Itun horretan jasotakoaren arabera, genero ekitatea berekin dakarren giza garapen sostengagarriak izan behar du nazioarteko komunitatearen lehentasunezko helburu, eta, beraz, pobreziaren eta berdintasunik ezaren aurkako borroka erantzukizun kolektiboa da. Testuinguru horretan zenbait erabaki hartu ziren, hala nola, lankidetzako udal politiken kalitatea areagotzea eta garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioa sustatzea, gizarte eraldaketarako tresna baliozkoa baita. Kopurutan, eginbide hori gauzatzeko bidea zen finkatutako guztizko aurrekontuaren % 0,7ra iristea.

Beraz, datozen lau urteetarako asmoa lankidetzarako esleitutako zenbatekoa pixkanaka igotzen joatea da. Horrez gain, Lankidetzako Atalaren lan egingo du Udalean aho batez adostutako itun hori Udalaren jardura guztia blaituko duten zeharkako politiketan isla dadin, Euskal Fondoak eta GGKEen Koordinakundeak onartutako Nazioarteko elkartasunaren eta garapenerako Euskal Autonomia Erkidegoko lankidetzako publikoaren aldeko manifestuarekin bat. Batik bat, norgehiagoka bidezko lehia libreko diru laguntzen deialdi publikorako esleitutako zenbatekoa handitzen saiatuko gara, egon daitezkeen gehikuntzak partida horri esleituz. Bestalde, zuzenean (lehia bidezkoa ez dena) esleitzen den aurrekontuaren ehuneko txikitzen saiatuko gara.

5.5 Garapena, segimendua eta ebaluazioa

Jarraian azaldu da zer segimendu eta baliotzatze ekintza egingo diren, helburuak zenbateraino bete diren ikusteko (planean jasotako aurreikuspenarekin alderatuko dira) eta, horren bidez, plana egiten ari den aurrerapenez eta jarduerak gauzaten direnean sortuko diren zailtasunaz jabetzeko; eta kronogramarekiko, aurrekontuan jasotakoarekiko edo ezarritako helburuekiko desbideratzeak zuzentzeko, baldin halakorik egon bada, lan metodologiak birplan-teatzeko edo ager daitezkeen ustekabekoen aurrean erantzuteko:

5.5.1

Plan operatiboak, segimendua eta urteko memoriak

Gida plan honetan ezarritako ildoak nolabaitteko malgutasunez garatu behar dira, aldaketak izan baitaitezke inguruabarretan, eta ildoak ezarri zirenean hauteman ez ziren beharrak ager baitaitezke. Horretarako, plan operatiboak egingo dira urtero, eta ezarritako emaitzak lortu ahal izateko gauzatuko diren ekintza zehatzak jasoko dira plan horietan. Ekintza bakoitzaren arduraduna nor izango den, kronograma eta beharrezko baliabideak ere azaldu beharko dira.

Urtero, lehen hiruhilekoan, oroitidazki bat egingo da, Lankidetzatza Atalaren aurreko urtean egindako lanaren berri emateko. Memoriarekin batera segimendua txosten bat egingo da, eta honako hauek jaso beharko dira bertan: helburuak eta emaitzak zenbateraino lortu diren, aurreikusitako kronograma zenbateraino bete den, aurrekontuaren gauzatzea eta zehar lerroetan egindako aurrerapenak.

Urteko plan operatiboa eta aurreko urteari buruzko Memoria urte bakoitzeko lehen Lankidetzatza Udalen Kontseiluan aurkeztu beharko dira. Segimendua txostenen analisiak Udalen Lankidetzatza politika birbideratzeko balioko du, baldin beharrezko bada, bai eta hurrengo urteetan pla-

na hobeto garatzeko gomendioak sortzeko eta sistematizatzeko ere.

5.5.2

Amaierako ebaluazioa

Ebaluazioa behar-beharrezkoa da lankidetzatza lana etengabe hobetzeko. Ikaskuntza prozesuetan hartu behar da, eta ohiko jardute gisa sartu behar da proiektuak amaitzean edo, kasu honetan, plan estrategikoak gauzatzeko. Gainera, ebaluazioak eginkizun garrantzitsua du garrantasunez joko dadin eta gizartearen aurrean kontuak emateko orduan. Beraz, garrantzitsua da ebaluazioen emaitzen berri zabaltzea esku hartzen duten eragileen eta, oro har, herritarren artean.

Plan honetan amaierako kanpo ebaluazioa egingo da. 2019. urteko azken hiruhilekoan egingo du kanpo aholkularitza edo aditu batek, eta aukera emango du ikasitakoa hurrengo gida planera sartzeko.

Ebaluazio txostena Lankidetzatza Udalen Kontseiluan aurkeztu, eta Lankidetzatza Atalaren webgunearen bitartez zabalduko da.





helburu estrategikoak, espero
diren emaitzak eta adierazleak

Atal hau helburu estrategikoak, emaitzak (helburu estrategikoari edukia ematen dioten jomuga zezatzak) eta adierazleetan (emaitzak eta helburuak zenbateraino bete diren erakusten duten seinaleak) egituratu dugu.

A) Helburu estrategikoa

KALITATEZKO GIZARTE ERALDAKETARAKO LANKIDETZA ETA HEZKUNTZA BULTZATZEA

Ekarpena GIHei:



Emaitzak:

A.1. Aurrekontu konpromisoa handitu da, era gardenean zabaldu da eta mugak ezarri zaizkio funtzionamendu kostuetara eta zuzenean esleitutako partidetara bideratutako zenbatekoari.

- Udalaren aurrekontutik lankidetzara bideratu den ehunekoa aurreko ekonomia ekitaldikoa baino handiagoa da.
- Herritarrei jakinaraziko zaie lankidetzarako aurrekontuaren zenbatekoa eta Udalaren guztizko aurrekontu finkatuaren ehunekoa.
- Lankidetzaren Atalaren gastu arrunta (funtzionamendu gastuak) ez da atalaren guztizko aurrekontuaren % 2 baino gehiago izango.
- Esleitutako zenbatekoak eta diru laguntza zuzenak emateko aintzat hartu diren irizpideak aditzera emateko webgunea, sare

sozialak, prentsaurrekoa eta jakinarazpena egiten da Lankidetzako Udal Kontseiluan.

A.2. Diru laguntzen deialdirako aurrekontua mantendu edo hobetu dugu, berariazko oinarriak hobetu dira eta giza garapen sostengagarriko prozesuak eta gizartea eraldatzeko ekimenak babesten dira.

- Aurrekontu konpromisoa bete dugu, eta diru laguntzen deialdietarako ehunekoa gehitu dugu.
- Diru laguntzen guztizko aurrekontutik gutxienez % 30 garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazio programetara bideratzeko konpromisoa bete dugu.
- Urtero, erakundearen eskura jarriko ditugu berariazko oinarrien ingeleserako, frantseserako eta portugalerako itzulpenak, egoitza soziala gaztelaniadun herrialdeetan ez

duten GGKEak ez kaltetzeko helburuarekin.

- Diru laguntzetako oinarriak tentuz berrikusiko dira, Batzordearen oinarriak lantzeko lantaldean, III. Plan honetan zehaztutako lerroei egokitzeko eta haztapen mekanismoak ezartzeko, interes bereziko alor guztiak estaltzen ez dituzten proiektuak ez zigortzeko.
- Diru laguntzak emateari buruzko behin-behinekoko ebazpena eskabideak aurkezteko epea bukatzen denetik aurrera gehienez ere lau hileko epean argitaratuko da.
- Diru laguntzetako deialdi bakoitzean laguntzen diren proiektu guztiak Plan honetan ezarritako printzipio eta lerroekin koherente izango dira.
- Urtero, diru laguntzen oinarriak argitaratu aurretik, informazioa emateko lantegia egingo dugu, egon daitezkeen aldaketak azaldu eta gomendioak emateko, proiektuak behar bezala aurkez daitezzen..

A.3. Diruz lagundutako programen segimendu eta ebaluazio egokia egin dugu.

- Jasotako segimendu txosten guztiak arretaz aztertuko ditugu, bai azalpenen zatia bai gai ekonomikoari buruzkoa, Lankidetzaren Atalera iritsi eta 30 eguneko epean, gehienez ere.
- Lankidetzaren Ataleko teknikariek hiru urteetan gutxienez bi segimendu bidaia egingo dituzte babesten ditugun lankidetzaren programak abian diren eskualdeetara, bide onetik doazela egiaztatzeko; eta alde aurretik eta gero bilerak egingo dira Donostiako GGKEekin, balorazio teknikoaren egiaztatze aldera.
- Lankidetzaren Ataleko teknikariek, urtero, babestutako gutxienez bi sentsibilizazio programaren segimendu zuzena egingo dute, eta egindako ebaluazioaren berri emango diote, gero, GGKEari.
- Lankidetzaren Ataleko teknikariak, gutxienez urtean behin, beste erakunde batzuen per-

tsionalarekin elkartuko dira, segimenduko bidaietan ikasitako esperientziak partekatzeko.

A.4. Donostiako Udalak Euskal Fondoan parte hartu izanari esker, elkarrekin babesitako proiektuen kalitatea hobetu da, eta elkarrekin bultzada politikoa eman zaio.

- Donostiako Udalak Euskal Fondoko kide izaten jarraituko du, eta bertako Zuzendaritza Batzordean parte hartuko du. Deitutako bileren gutxienez % 90etan izango da.
- Aurrekontuaren % 10 gehi elkarteko kide izateagatik kuota Euskal Fondora bidertzeko aurrekontu konpromisoa mantenduko dugu.
- Gida plan honetan aipatutako interes bereziko arloei loturiko programak babestu ditugu urtero, eta babes horren berri zabaldu dugu, prentsaurrekoaren, webgunearen eta beste bide batzuen bitartez.
- Donostiako Udaleko teknikariak Euskal Fondoko talde teknikoarekin lankidetzan arituko dira babestutako prozesuak indartzeko lanean. Horri esker, lankidetzaren ekonomikoa ez ezik, lankidetzaren teknikoaren ere gauzatuko da, eta hori onuragarri da bai Hegoko udalerritarako, bai Donostiarako.
- Donostiako Udalak Euskal Fondoak sustatutako eztabaida eta ekimenetan parte hartuko du.
- Donostiako Udaleko politikariek edo teknikariek babestutako proiektuei segimendua eta ikuskapena egiteko gutxienez bidaia batean parte hartuko dute.

A.5. Sahararekin eta sahararren auziarekin harremanetan eta haiei laguntza ematen jarraitu dugu; eta lankidetzak egin ditugu, iheslarien behar praktikoak betetzea ahalbidetu dezaten eta haien autodeterminazio helburu estrategikoa betetzen eta okupatutako lurraldea berreskuratzen lagun dezaten. Gai-

nera, lankidetzaren kalitatea hobetu dugu, genero berdintasunaren ikuspegia txertatuz.

- Lankidetzaren Atalak egindako sentsibilizazio programazioan sahararren auziaren salaketa eta hedapena bultzatuko dugu, eta urtean gutxienez jardura bat egingo dugu.
- Sahararrekiko zuzeneko lankidetzarako partida bat emango da urtean.
- Donostia eta Sahararen arteko lankidetzaren azken 10 urteak sakon ebaluatuko dira eta ondoren, lagundutako proiektuetan genero inpaktuari eta emakumezkoen ahalduzera bideratutako ekintzei dagozkien adierazleak sartuko dira.

A.6. Lankidetzaren Ataleko teknikariek presuntakuntza egokia jaso dute, eta ezagutza eguneratu dute.

- Lankidetzaren Ataleko teknikariek lankidetzari eta/edo garapenerako hezkuntzari loturiko gutxienez bi ikastaro egingo dituzte edo bi jardunalditan izango dira urtean, duten trebakuntza hobetzeko eta ezagutza eguneratzeko.
- Lankidetzaren Ataleko gutxienez bi teknikari Lankidetzako Udal Kontseiluaren osoko bilkuretan erregulartasunez izango dira.
- Urtean gutxienez bilera bat egingo da GGKEen Koordinakundearekin, Donostiako GGKEen egoerari, beharrei eta aldarrikapenei buruzko informazioa partekatze aldera.

B) Helburu estrategikoa:

DONOSTIAN GENERO BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA SOZIALAREKIN SOLIDARIOAGO ETA KONPROMETITUAGOA DEN GIZARTEA LORTZEKO ALDAKETA BULTZATZEA

Ekarpena GIHei:



Emaitzak:

B.1. Donostian elkartasunari loturiko jarduerak hedatzeko programa (Donostia Mundu Artean) bi hilabetean behin paperean argitaratzen jarraitu dugu, eta digitalean maiz eguneratzen, eta baliabideen gero eta erabilerera eraginkorragoa eta efizienteagoa egitea lortu dugu, eta herritarrengan eragin handiagoa ere bai.

- Donostia Mundu Artean programa bi hilabetean behin argitaratuko da paperean, zabaltzeko gutxienez bost jarduera beharko direlarik. Programaren web bertsioa jarduerak sortu ahala eguneratuko da, eta sortu ahala zabalduko dira posta elektronikoko bidez eta sare sozialetan ere, baldin jarduerak gutxienez hiru eguneko aurrerapenarekin jakinarazi bazaizkigu.
- Donostia Mundu Artean programara sare sozialen bidez iristen den pertsona kopurua urtean gutxienez % 5 handituko da.
- Donostia Entremundos – San Sebastian Munduen Artean programaren inpaktua eta eragina areagotzeko Komunikazio plan bat jarriko da abian.

B.2. Lankidetzat Atalak, beste eragile batzuekin lankidetzan, gizarte eraldaketarako jardueren programazioa bultzatu du hirian, gero eta eragin, eraginkortasun, efizientzia eta osagarritasun handiagoa lortuz GGKEek hirian egiten dituzten jarduerekin.

- Lankidetzat Atalak, udal beste departamentuarekin edo gizarte mugimenduko plataformarekin lankidetzan, gai bati buruzko gutxienez programa bat antolatu du, plan honetan lehenetsitako moduan finkatutako arloei lotuta: nazioarteko koiunturaren ulermena, kontsumo kontziente eta arduratsuaren sustapena, herritartasun globalaren baloreen sustapena eta beren lurraldearen alde borrokan ari diren herrien egoera. Programa hauetakoa bakoitzean, publiko zehatz bati eta ez biztanleriari orokorrean bideratutako gutxienez jarduera bat sartuko da.
- Urtero, Lankidetzat Atalak gutxienez sentsibilizazio eta garapenerako hezkuntzako jarduerak bat antolatuko du Udaleko beste sail batzuekin batera (Berdintasun Saila, Kultura Dibertsitatea, Gazteria, Ingurumena, Donostia Kultura, eta abar).

- Antolatutako jardueren segimendua eta eragina neurtzeko ebaluazio bat egingo da.
- Plan honen indarraldia bukatu baino lehen, gutxienez bi sentsibilizazio jarduera egingo dira, Euskal Fondoarekin lankidetzan.

B.3. SEADen Lagunen Elkartarekin lankidetzan, urtero, haur sahararrak hartzeko Oporrak Bakean programa eta sahararrei laguntzeko elkartasun karabana egin ditugu; eta bi aukera horiek baliatu ditugu sahararren eskubideen berri emateko eta aldarrikatzeko, eta bizi duten egoera politikoa eta humanitarioa salatzen.

- Urtero, Oporrak bakean programa gauzatu dugu, eta Donostiako familiek gutxienez 30 haur saharar hartuko dituzte, udan.
- Abegi familiekin informazioa emateko bileretan, herri saharararen egoera politikoa eta sozialaren berri emango diegu.
- Urtean zehar, abegi familiei unean-unean informazioa emango zaie Donostian egin diren sahararrei laguntzeko ekintzei buruz.
- Planaren indarraldiak irauten duen bitartean, Oporrak Bakean programaren funtzionamendu eta kudeaketari buruzko hausnarketa sakona egingo da, erronka eta behar berriei egokitzeko.
- Sahararrei laguntzeko elkartasun karabana diruz laguntzen jarraituko dugu, eta Donostiatik abiatzen denean, karabanaren zabalkundea eta irteera erraztuko ditugu. Karabanak eragina du iheslarien egoera humanitarioa hobetzean, baina hortik harago ere erabili da: bozgorailu gisa ere baliatu da, herri saharararen egoera salatzen eta haien giza eskubide guztiak berma daitezen eskatzeko.

B.4. Donostiarren artean ohitura aldaketa bultzatu dugu, kontsumo eta ekoizpen sostengagarri, ekologiko eta elkartasun handi-gokoa egin dadin.

- Planaren indarraldia amaitzen denean, kontsumo sostengaezinaren aurrean dauden aukeren berri emateko gutxienez bi hedapen kanpaina egingo dira, besteak beste: bankugintza etikoa, bidezko merkataritza eta kontsumo kooperatibak, Arropa Garbia kanpaina, paradisu fiskalen aurkako kanpaina...
- Udalean, GGKEetan nahiz donostiarren artean bankugintza etikoaren zerbitzuak ezagutzeko eta erabiltzeko bultzatuko da.
- Donostia Bidezko Merkataritzaren aldeko Hiria izaten jarraituko du eta sareak sustatzen dituen ekintzetan parte hartuko du.

E) Helburu estrategikoa: POLITIKEN KOHERENTZIA

Ekarpena GIHei:



Emaitzak:

E.1. Udaleko hainbat sailekin batera egindako lanaren esparruan, Udalean erosketa eta kontratazio publiko etikoa sartzen jarraitu da, finantza etikoaren erabilera aurrera egin da eta hiria "paradisu fiskalik gabeko gune" izendatu da.

- Lankidetzat Ataleko teknikariek aholkularitza eskainiko dute erosketa publiko etikoaren inguruko klausulak sartzeko, ardura duten departamentuek eskatzen badute.
- Udala Fiare kreditu kooperatibako bazkide bihurtu da.
- Udalak lehiaketa bidezko diru laguntzetako partida Fiareren kontu batean sartzen jarraituko du, eta bertatik ordainduko zaie elkartei.
- Kontratazio txikietan dauden aukera sozialki arduratsuen berri emateko, Udalean formakuntza bat emango da.
- Euskadiko GGKEn Koordinakundeak bultzatutako politiken koherentziari buruzko diagnostikoari lagunduko zaio.
- Donostia, "Paradisu fiskalik gabeko gune" adierazpenaren mozioa udaleko osoko bilkurara eramango da.

- Ekimena abian jartzeko beharrezkoa den mekanismoa jasoko duen araudiaren aldaketa Udal kontratazioarako politikan sartzea proposatuko da.
- Onartu ondoren, udal kontratazioaren deialdi ezberdinek paradisu fiskaletan presentzia izatearen balorazio irizpideak aplikatuko dira eskaintza aurkezten duten enpresa guztien kasuan, paradisu fiskaletan filialak dituzten enpresen kontratazioa ez bultzatzeko.

E.2. Datuetarako sarbidea eta gardentasuna hobetu dira, herritarrek errazago izan dezaten lankidetzako politika publikoaren segimendua egitea.

- Urtero, aurrekontuak onartu eta gero, informazioa zabalduko da prentsaurrekoan eta webgunearen bitartez, eta Lankidetzako Udal Kontseiluan jakinaraziko da.
- Udalak Lankidetzat Atalaren ekimenei ahalik eta zabalkunde handiena emango die (webgunea, prentsa oharra edota prentsaurrekoa).
- Euskarri bat sortuko da, paperean (liburuxka, aldizkaria, egunkaria edo antzekoa), informatiboa, erakargarria eta eskuragarria,

eta bertan hiritarrei Atalak diruz laguntzen dituen proiektu eta programen berri eman go zaie. Dokumentu hori banatu egingo da, ahalik eta publiko mota gehienengana iristeko, eta urtero berrituko da, lagundutako programak eguneratzen joateko.

- Urtero, lehen hiruhilekoan, Lankidetzako Kontseiluan aurkeztu eta analizatuko da, eta webaren bidez Lankidetzak Atalaren memoria zehatz, narratibo eta ekonomikoa zabalduko da, Plan Zuzendari honen jarraipen txostenarekin batera.
- Urtero, lehen hiruhilekoan, urteko plan operatiboa aurkeztuko dugu Lankidetzako Udal Kontseiluan. Plan operatibo horretan azalduko dira aldi bakoitzerako ezarritako emaitzak lortzeko beharrezko diren ekintza zehatzak, eta horretarako zer baliabide esleitu den eta zein pertsona edo sail arduradun izendatu den ere jasoko da.
- Plan honen indarraldiko azken hiruhilekoan, planaren kanpo ebaluazioa egingo da. Lan horretan tartean izango dira dagokien eragile guztiak, eta Lankidetzako Udal Kontseiluan aurkeztu eta webgunean zabaldu da, gero..

E.3. Donostiako Udalak, oro har, ageriko egin du herri sahararra babesten duela.

- Herri sahararrari laguntzeko eta haien eskubideen aldarrikapen politikoa egiteko gutxienez erakunde adierazpen bat onartuko da osoko bilkuran.
- Otsailaren 27an, urtero, bandera sahararra jarriko dugu udaletxean, Saharako Arabiar Errepublikako Demokratikoaren aldarrikatuzen egunaren urteurrena ospatzeko.
- Gutxienez, aterpetu sahararren elkartasunarekin zuzenean lotutako GEH ekintza bat egin da.
- Plan honen amaiera aurretik, gutxienez bidaia bat egingo da aterpetu sahararren Tindoufeko kanpamentuetara, Udaleko

talde politiko guztietako eta hedabideetako ordezkariekin. Bidaiaren ondoren, Donostiako Udalak emandako babes politikoaren berri zabalduko dugu.

E.4. Donostiako Udalak, oro har, ageriko egin du palestinarrek babesten dituela.

- Maiatzaren 15ean, urtero, Palestinako bandera jarriko dugu udaletxean, Nakba-ren eguna ospatzeko, palestinar herriaren exodoaren hasiera.
- Gutxienez, palestinar herriarekiko elkartasunarekin zuzenean lotutako GEH ekintza bat egin da.

E.5. Donostiako Udalak, ageriko egin du iheslariak babesten dituela.

- Martxoaren 19an, urtero, eta Kultura dibertsitatearen departamentuarekin lankidetzan, Udaletxean Ongi Etorri Errefuxiatuak sinboloa edo errefuxiatuen aldeko laguntza mugimenduak eskatzen duena jarriko da.
- Gutxienez, krisi humanitarioaren kausa eta iheslariarekiko elkartasunarekin zuzenean lotutako GEH ekintza bat egingo da.

E.6. Berdintasuna eta Kultura dibertsitateko departamentuekin lankidetzan, udaleko komunikazioko profesionali prestakuntza eman zaie, departamentu hauetan lantzen dituzten gaietako mezuen eta irudien tratamenduaren gainean.

- Udaleko berriak eman ohi dituzten hedabideetako kazetariei, udal gobernuko lantaldearekin batera, gosari bat eskainiko zaie GGKEen Koordinakundearekin eta hiriko plataforma aktiboekin lankidetzan antolatuta, elkar ezagutu eta esperientziak elkarri kontatzeko lagunarteko espazioa sortzen laguntzeko.

D) Helburu estrategikoa:

LANKIDETZAN ETA GIZARTE ERALDAKETAREN HEZKUNTZAN LANEAN DIHARDUTEN DONOSTIAKO GGKE-AK ETA GIZARTE MUGIMENDUAK INDARTZEA

Ekarpena GIHei:



Emaitzak:

D.1. Lankidetzaren arloan lan egiten duten Donostiako erakundeetako langileen (liberatuak edo boluntarioak) prestakuntza eta gaikuntza hobetu da.

- Urtero, GGKEen Koordinakundeari eta Lankidetzarako Kontseiluari, lankidetzan aritzen diren pertsonen interesekoak izan daitezkeen gaien inguruko ikastaroak programatzeko aukera emango zaie.
- Lankidetzako Udal Kontseiluarekin eta GGKEen Koordinadorearekin (genero taldearekin bereziki), bai eta Berdintasun Atalarekin ere koordinatuta lan egin ondoren, genero berdintasunaren aldeko prozesuak errazteko mekanismoak ezarriko dira, eskatzen duten GGKEek, batez ere hartarako nahikoa baliabide ez dutenek, balia ahal ditzaten.

D.2. Lankidetzako Kontseiluko parte hartzea handitu eta hobetu da, eta baita bertako proposamenen irismena ere.

- Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren laguntzaz, parte hartzea hobetu eta osoko bilkurak dinamizatzeke metodologiak martxan jarriko dira.
- Urtero, lan egitasmo bat ezarriko da, eta, gutxienez, % 90 beteko da.
- Urtero, oinarrietarako lantalde bat sortzea proposatuko da, diru laguntzetako oinarrietan egon daitezkeen aldaketa posibleak elkarrekin lantzeko.
- Gune birtuala sortuko da Kontseiluko kide diren erakundeen ezagutza, esperientzia eta praktika onak partekatzeke.

D.3. Euskadiko GGKEen Koordinakundearen Gipuzkoako ordezkartzaren Donostiako egoitzari ematen zaion laguntza mantendu dugu.


- Urtero, GGKEen Koordinakundearekiko hitzarmena berrituko da, eta funtzionamenduaren eta bulegoan eta idazkaritza teknikoan herritarrei ematen zaion arretaren zati bat finantzatu dugu. Horrez gain, urtero, Donostian sentsibilizazio jarduera bat egiten dugu elkarrekin, gutxienez, bai eta hitzartutako beste jarduera batzuk ere.
- GGKEen Koordinakundearekiko hitzarmenerako ematen dugun zenbatekoa mantendu edo gehituko dugu.

D.4. GGKEen, gizarte mugimenduen, eta herritarren bestelako elkarten arteko sareak eta partzuergoak bultzatu ditugu.

- Diru laguntzen deialdiaren oinarriek mota horretako partzuergoei eta sareei laguntzen jarraituko dute.
- Urtero, Zero Pobrezia plataformak urriaren 17ari lotuta edo beste kanpaina batzuetan egindako jarduerak babestuko ditugu.

D.5. Lankidetzaren arloan lanean diharduten erakundeei eta GGKEei Udalean egin beharreko izapide burokratikoak errazago egiteko aukera eman diegu.

- Eskatu duten guztietan, teknikariek lankidetzaren arloan lanean diharduten erakundeei eta GGKEei orientazioa eskaini diete, egin behar dituzten udal izapideak (aretoak erreserbatu, baimenak eskatu, eta abar) modu arin eta eraginkorrean egin ditzaten.





esker erakutsiak

Plan hau Donostiako Udaleko Lankidetzaren Bulegoak egin du, Lankidetzako Zinegotzitzak markatutako ildoak jarraiki, eta behean aipatzen ditugun erakunde eta pertsonen berrikusi dute, bai eta beren ekarpenekin aberastu ere. Eskerrak eman nahi dizkiegu haiei guztiei. Izan ere, beren laguntza gabe, ezin izango genuen sortu Udalaren lankidetzaren arloko politika definitzen duen III. Plan Zuzentzaile hau:

Gogoan ditugu Donostiako Udaleko Lankidetzaren Kontseilua osatzen duten erakundeak, batez ere Batzorde Iraunkorren kide direnak eta, haien artean bereziki, aurreko planaren ebaluazio-saioetan eta III. plan honi ekarpenak egitekoetan parte hartu dutenak.

- Euskadiko Garapenerako Gobernuaren Kanpoko Erakundearen Koordinatzailea eta, batez ere, bertako eragin politikoko taldea.
- Euskal Fondoko talde teknikoa, oso laguntzaile handi eta hurbila izan delako.
- Udaleko Berdintasun, Giza Eskubide eta Kultur Aniztasunaren bulegoetako lankideak, laguntza eman eta konplizitatea erakutsi digutelako.
- Silvia Piris eta Monika Plazaola aholkulariak, 2011-2015 Plana ebaluatzen lagundu digutenak. Ezin ahaztu ebaluazio horretatik ikasitako guztia.

